

Herriak

Ponentzia



aurkibidea

Sar hitza	3
Ildo politikoa	6
1. Egoerari so	6
2. Nazio askapen prozesua ziklo politiko berrian	13
3. Datozen urteotarako ortzimuga bat eta bost erronka	19
4. Ildo politikoa	21
5. Ildo politikoa lurreratuz	30
Antolaketa eta funtzionamendua	38
1. Sarrera	38
2. Sorturen ezaugarritzeaz	40
3. Sortuko militantziaz	48
4. Sorturen antolaketa moldean egokitzapenak	49
5. Zuzendaritza egituraren egokitzapenak	55
6. Ildo politikoaren lanketa eta transmisioa	60

Sar hitza

Pandemiaren ondorioz urtebetez atzeratu eta gero, eskuartean duzun Herrigaia ponentziaren aurkezpenarekin zabaldu dugu Sorturen III. Kongresu eztabaida. Horretan murgilduko gara urtarrila bitarte, herri batzarretan ponentzia eztabaidatzeko -hobetzeko edota zuzentzeko-, lehenengo, eta nazio zuzendaritza eta herrietako arduradunak hautatzeko, gero. Denbora hartuko dugu, beraz, barrura begiratzeko, gure mugimenduan dagoen esperientzia eta inteligentzia kolektiboa biltzeko, gerora gure jardun politikoan eraginkorrakoak izan asmoz.

Kongresu aurretik ere, eztabaida kolektiboan aritu gara. Udaberrian 500 buruz buruko elkarrizketa inguru egin genituen, Zohardiatik honako ibilbidearen balantzea osatzeko ariketan iritzi lagin zabal bat bilduz. Jaso ziren iritziak aintzat hartuta idatzi genuen txostena, ekainean zehar herri batzarretan eztabaidatu eta Atarrabiako Nazio Batzarrean onartu genuena. Udan zehar, berriz, Nazio Topaketetan bildu gara, Durangon eta Oiartzunen. Bertan, Nazio Kontseiluak aurkezturiko tesi politiko-organizatibo nagusien gaineko lehen kontrastea egin genuen, bai eta, tailerretan, gai zehatzak jorratu ere. Dena, txostenaren elaborazioa ahalik eta kolektiboena izateko helburuz. Prozesu luze horren guztiaren ondorio da Herrigaia ponentzia.

Ez gara zerotik abiatzen

Eztabaida berri bat irekitzera goaz, baina ez gara zerotik abiatzen. Txosten hau beste gogoeta eta txostenen gainean osatua dago:

- Birfundazioaren Kongresuan onartu genuen Zohardia txostena dugu ponentzia honen abiapuntu. Birfundazio Kongresua zenez gero, zehaztapen ariketa mardula egin genuen eta ikuspegi luzeko apustu politiko eta organizatiboa finkatu genuen. Zentzu horretan, Herrigaia ponentzia honetan ez ditugu atal guztiak errepikatuko.
- Urtez urte egin ditugun Plan Politikoak aintzat hartu ditugu, Zohardian finkaturiko erronken eguneratze eta lurreratze ariketa izan diren heinean. Aintzat hartu dugu baita egin berri dugun balantzea ere. Bertan jasotzen diren aurrerapenetan oinarritu eta ageri zaizkigun hutsuneei erantzuteko ahalegina egin dugu.
- Geure egiten dugu osoki, gure bidelagunekin batera EH Bilduren II. Kongresuan onetsi berri dugun apustu politiko eta berau aurrera ateratzeko gure konpromisoa berresten dugu. Ikuspegi osoa izanagatik, ponentzia honetan desoreka bat egin dugu EH Bildurekiko dugun ardura horretatik at gelditzen diren zereginetan, batez ere ildo politikoan. Bestela esanda, antolakunde gisa, EH Bildu eta Sorturen funtzioak eta zereginak zehaztasunez argitzera jo dugu, jakinda, betiere, EH Bilduren funtzioak, bilkide gisa, gureak ere badirela eta EH Bilduren erabakiak EH Bilduk berak hartzen dituela, ez guk.

- Ipar Euskal Herrian ezker abertzalearen baitako gogoeta ireki genuen joan den urrian, iragan ziklo politikoa- ren azken hamarkadetako bilana egiteko eta bereziki, urteetako borrokari esker ireki den fase berriari begira jartzeko. Eztabaida horien ondorioak -“Ezker abertzalearen ibilbide politikoaren bilana Ipar Euskal Herrian” eta “Jauzi berri bat Ipar Euskal Herriko prozesuan. Ezker abertzalearen ekarpena” dokumentuetan bilduta- geure egiten ditugu Herrigaia ponentzian.
- Azkenik, azken urteotan egin ditugun gogoeta estrategikoak -mugimendu gisakoak, barne mailakoak edo- ta eremu estrategikoei dagozkienak- eta haietatik eratortzen diren ondorio eta konpromisoak Herrigaia txostenaren osagarri dira. Batetik, Sorturen parekidetasun diagnostikoa eta haren ondorio den “Sorturen I. Plan Feminista”. Bestetik, euskalgintzan eta hezkuntzan egin ditugun gogoeta estrategikoak: “Euskaldun- tze prozesua arnasberritzen, ezkerretik eta independentismotik” eta “(H)arian, Euskal hezkuntza feminista, komunitario eta burujaberako gakoak”.

Askapen prozesuan jauzia

Ponentzia honen ideia nagusia da nazio askapen prozesuan jauzi bat egin behar dela. Hiru arrazoitan oinarri- tzen gara:

- Duela hamar urte luze, estrategia aldaketari ekin genionean, askapen prozesua ataka batean zegoen. Urrats ausarta egin genuen, zer emango ote zuen jakin gabe. Trantsizioa luze, zail eta gorabeheratsua izan da, oz- topoz betea. Eta, hala ere, non geunden eta non gauden ikusita, arrakastatsua izan dela uste dugu. Aurreko zikloaren bulkadaren ondorioz herri gisa bizirik iritsi baldin bagara, orain, aldaketaren gorabeherak gaindi- tuta, prozesu politikoan aurrera egiteko aukera parez pare irekita dugu.
- Ibilbide luze eta zail horren baitan, duela bost urte genuen egoera gainditu eta urteotan urrats esangura- tsuak egin ditugula hausnartu dugu balantzean: ETaren zikloa itxi dugu; ezkerreko subiranismoaren etxe komunak diren EH Bildu eta EH Bairen eraikuntzan eta indartzean urrats garrantzitsuak egin ditugu; Nafa- rroa Garaian eta Ipar Euskal Herrian aldaketa esanguratsuak sustatzen ari gara eta euskal preso, iheslari eta deportatu politikoak etxeratzeko bidean blokeoa hautsi dugu, jakin badakigun arren gai hau erabat konpon- du arte, hots, presoen askatasuna lortu arte, estatuek gure ildo baldintzatzeko erabiltzen jarraituko dutela.
- Ez ziren nolanahiko erronkak eta ahalegin handia eskatu digute. Horregatik uste dugu gaur atzo baino prestatuagoak gaudela jauzi berriak egiteko. Euskal Matxinada historikoa fase berri batera eraman dugu, oztopoen gainetik, matxinada berriak pizteko aukerak irekiz, borrokek egoera aldatzeko gaitasuna dutela (berriro ere) mahai gainean jarritz.
- Une garrantzitsu batean gaude, aukeraz eta arriskuz beterikoa. COVID-19ak erakutsi du noraino iristen di- ren korapilatutako krisiak eta zeinen beharrezkoa den gure estatua izatea. Euskal Herria, ordea, herri gisa mehatxu eta ahulezia gune handien pean iritsi da une honetara. Horregatik uste dugu herri-nazio bulkada indartsu bat artikulatu behar dela eta, bistan da, azken hamarkadetan herri honen biziraupena bermatu duen tradizio politikoak dauzkala hori sustatzeko gaitasuna eta ardura. Indar eta gaitasun komunitarioak askatu eta antolatu behar ditugu, askapen prozesuaren mesedetan jartzeko, honatx egin beharra.

Hori da ponentzia honek biltzen duen erronka: prozesu subiranista eraldatzailea azkartzeko sortzen ari diren/ garen aukerak baliatzeko prestatu, batetik, eta herri susperraldi baterako oinarriak jarri, bestetik. HERRItmoa BIZItzea, azken batean. Horregatik jarri diogu Herrigaia izena ponentziari, Herria egiteko erregaia izatea delako Sorturen misioa.

Erronka politikoak itzulpen organizatiboa behar du ezinbestean. Aipatu erronka eremu eta herri guztietan lurreratu nahi dugulako, batetik, eta gure komunitateko pertsona bakoitza eginbehar zehatz baten baitan saretu nahi dugulako, bestetik. Azken batean, gure komunitatearen aktibazioan eta antolaketan dago proposamen honen arrakastaren gako nagusienetako bat.

Non jarri dugu arreta?

Aipatu berri dugun misioa burura eramatea helburu, ikuspegi jakin batetik ekin diogu txostenaren idazketari:

- Estrategia aldaketari ekin genionetik hamar urte luze igaro direnean, uste dugu zikloen arteko ibilbidearen ikuspegia gaintu behar dugula. Bai, bederen, fase politikoaren irakurketari eta oinarri estrategikoei dagokienez, batetik, eta alde pertsonal-emozionalari, bestetik. Izan ere, trantsizioa politikoa eta mugimendu gisakoa ez ezik, pertsonala ere izan da, tartean, norberak zituen espektatibek, irudikapenak eta abarrekoek eragiten dutelarik. Gure garaiko premiek, bestalde, geure zilbor-hesteari begira uzten ahal gaituzten joerak mugatzea eskatzen digute: garaia da fase bat guztiz itxi eta beste batean kokatzeko, horrek dakartzan ondorio guztiekin.

Horretarako, azken urteotan landu ditugun oinarri estrategikoak bildu ditugu, horiek barneratzeak askapen mugimendu osoari egonkortasuna eta ziurtasuna -egungo testuinguruan halakorik balego- emateko berebiziko garrantzia duelakoan.

- Bigarrenik, datozen urteotan zein testuingurutan murgilduko garen aztertu dugu. Egoeraren azterketa borobil eta behin betikoa egin beharrean, garai aldakorrotan sumatzen diren joerak eta horien ondoriozko hipotesiak bildu ditugu, helburu praktikoa batekin: sor daitezkeen erronka eta aukerak identifikatu eta horietarako prestatzea.
- Azkenik, Sorturen identitate eta misio propioari erreparatu diegu, euskal nazio askapen mugimenduaren tradizio historikoaren ordezkari gisa. Horrela, alde batetik, Sortu eta EH Bilduren artean batzuetan izan den nahasketa argitu nahi dugu. Eta, beste aldetik, gure komunitatea kohesionatu, artikulatu eta aktibatzekeo baliagarria izan nahi du, arestian aipatu dugun trantsizio pertsonal-emozional hura gaintutuztat emateko.

Hiru osagai horiekin osatzen da gure ildo politikoa: badugu eskema politiko bat, badugu identitate-misio bat eta badakigu zer testuingurutan jokatu beharko dugun.

Ponentziari buruz, azken oharrak

Eztabaida prozesuak eta ponentzia honek berak nazio ikuspegia badute ere, Ipar Euskal Herrian prozesu propioa egiten ari garenez, ezaugarritze berezitua izango du Sorturen kongresuak.

Ponentzia honetan sintesi ahalegin bat egin dugu, eztabaida errazte aldera. Hala ere, aipatu bezala, egin ditugun beste gogoeta estrategiko batzuk proposamenaren baitan kokatzen ditugu. Horrez gain, hainbat dokumentu erantsita daude, zenbait atal sakonago aztertu nahi izanez gero. [Eranskinak Partehartu plataforman]

Nahita erabaki dugu txosten borobil-borobilik ez egitea. Abiadura biziko garaietan murgilduta gaude eta, gehiegi zehaztuko bagenu, epe laburrean zaharkitua gelditzeko arriskua hartuko genuke. Uste dugu, gainera, gaur egun hori dela zuzendaritza egiteko gakoetako bat: eskema politiko argi bat izan eta egoera berri eta ezustekoen aurrean egokitu eta kudeatzeko gaitasuna izatea.

Ildo politikoaren atalean, berriz, jasotzen diren ildoetako batzuk sakontze gogoeta berezitua behar dute. Kongresua pasata prozedura zehatzak ezarriko dira horretarako.

1. Egoerari so

1.1 Joera globalak: Zibilizazio krisia eta pandemia

Pandemia astinaldi orokor bat izan da. Azken bi urteetan eragin dituen era guztietako ondorioak itzelak dira, gurean zein maila globalean. Alde batetik, sistema kapitalista eta patriarkalaren alde anitzeko krisia azkartu du eta horrekin batera politika neoliberalen ondorio kaltegarriak azaleratu ditu. Horrekin batera, azken urteetan munduan hedatzen ari zen autoritarismo eta kontrol sozialerako joera ere indartu da. Pandemiak izango duen garapenak eta haren ondorio guztien irismen osoa ezagutzen ez badugu ere, dagoeneko esan dezakegu arrasto sakona uzten ari dela gure jendartean. Bestalde, krisi eta larrialdi klimatikoaren bizkortzea egungo garapen eredia eta sistema kapitalista bera agerian jartzen ari da. Berriki jakin izan da NBERentzat lanean ari diren ikerlarien arabera, eredu honen eta larrialdi klimatikoaren arteko bateraezintasuna argia dela eta, horregatik, errotikako aldaketak eta neurriak eskatu dituzte. Bizi garen garaian, zibilizazio krisiaren larritasunak ezartzen ditu edozein eraldaketa edo askapen egitasmoren baldintzak, irakurketa apokaliptiko desmobilizatzaileetan erori gabe, amildegira goazelako, norabidea aldatzen ez badugu.

Beste sistemek bezala, sistema kapitalistak iraunkorki krisi ekonomikoak eragiten ditu, zapalkuntza eta esplo-tazio mugarri berriak eraginez. Duela hamar urteko finantza krisiaren ondorioak oraindik ere gaingitu gabe geundenean eta COVID-19 osasun krisia jazo aurretik, atzeraldi ekonomikoa iragarrita zegoen jada. Finantza krisiaren aitzakian inposatutako bankuen "erreskatea", lan eta pentsio erreforma gogorrak, zerbitzu publikoeta-ko murrizketak edota politika pribatizatzaileak, horiek guztiak, ez ziren sistema kapitalistak uneoro behar duen hazkunde ekonomikoa bermatzen ari. Ondorioz, pandemiak eragindako geldialdi ekonomikoak iragarpen hori azkartu eta bere dimentsioa izugarri areagotuko du ezbairik gabe. Areago, krisi ekonomikoaz gain, sistemak berak eragiten dituen bestelako krisi batzuk ere eztanda egin dute azken urteetan, hala nola, krisi klimatikoa, petroleoaren gailurraren ondorioz eratorritako krisialdi energetikoa, zaintza krisia eta migrazio masiboek sor-turiko krisi humanitarioa. Horiek ere, "zibilizazio krisi" gisa ezaugarritua izan den egoeraren ondorio zuzen eta nabarmenak dira. Krisi horiek guztiak eta egitura ekonomikoaren aldaketaren ondorioak sektore jakin batzuk kolpatzen ari dira bereziki: migranteak, emakumeak, gazteak, lan prekarioak dituztenak... Sektore zaugarrie-nak, finean. Sektore zabalen bizitzaren prekarizazioa ematen ari da, gero eta nabarmenago, eta ezberdintasun sozialak areagotzen ari dira. Lanaren mundua erabat aldatzen ari da, esaterako, egonkortasun eza baldintza makurrageoan atea bilakatu delarik.

Testuinguru honetan, arreta berezia eskaini behar diogu robotizazio eta digitalizazioaren hedapenaren az-kartzeari. Prozesu horrek enpleguan, lane(t)an, baliabide naturalen ustiaketa eta gure eguneroko bizitzan (hezkuntzan, humanitate digitalen garapenean, datuen erabilpen eta kontrol sozialean, parte hartze demokra-

tikoan, etab.) izango duen eragina ikusteke dago gaur gaurkoz. Edonola, prozesu honen abiadura eta sakontasuna izugarriak dira eta, jakina, maila batean ala bestean, aukera ezberdinen oinarri materialak ere badira: zapalkuntza berrien iturburua, ala, aldiz, sozialista eta feminista defini dezakegun gizarte baten bermerako tresna.

Berez, sistema kapitalistak lanaren gainbalioari esker lortzen du etekina, kapital metaketa eta beronen garapena. Digitalizazioak eta robotizazioak horretan ere eragiten du eta eskuratutako gainbalioa jaisten den neurrian, ekonomiaren finantziarizazioa edota espekulazioa erabili ohi dira saihezbide gisa. Edonola, ideia bat azpimarraitu nahiko genuke: aipatu digitalizazio prozesua langile eta herri sektoreon mesedetan ala kapitalaren interesen alde garatu daiteke. Ezaguna da teknologia noren esku dagoen eta beraz noren zerbitzura jarri nahi izango duten, baina historian zehar gertatu den bezala lana (bizitza) eta kapitalaren arteko indar korrelazioak erakutsiko du eremu honetan ere emango den lehiaren azken emaitza eta beraz esparru hau ere lan eta borroka esparru gisa hartzeak garrantzia handia du.

Egoera honetan, ezin da baztertu eliteengan ere kezka ugaltzea eta goitik beherako erreforma kontrolatuak abian jartzea. Beste kontu bat da zein forma hartu dezaketen aldaketa hauek, batetik, eta aurrera eramateko kotsentsurik eraikiko duten, bestetik. Izan ere, horrek ikuspegi estrategiko handia eskatzen du eta oso indartsua izango da batzuegan epe laburrean krisia negozio handiagoak egin eta behekoen gaineko presioa areagotzeko aukera gisa hartzeko tentaldia.

Bestalde, krisi egoera batzuetan ordena baten beharrak sistemarekiko leialtasunaren forma hartzen du. Soilik alternatiba baten aukera ikusten dutenean egiten dute gehiengo sozial zabalek inpuazio sistemikoaren hautua. Zabaltzen ari diren amorrua, nekea eta zapuzketaren inguruan gauzatuko dira borroka handienak hurrengo urteetan.

Denboraren distorsio izugarria gertatzen ari da, eta efektuak erraldoiak dira. Nabarmena da gero eta zailagoa dela jende askorentzat esperimintatzen ari garen aldagetak ulertzea, eguneroko bizitzan edota tenpusaren pertzepzioan antzematen diren astinaldiak ez baitira gardenak, konplexu eta kontraesankorrak baizik (bizkortze teknologikoa....). Ezjakintasunak, negazionismoak, fundamentalismoak, katastrofismoak eta itxiera nostalgiko-sektarioak errazten ditu. Bestalde, gero eta gehiago barneratzen da oraingo gazteak aurreko belaunaldiak baino makurrago biziko direla, efektu sakon eta gogorak izango dituen pertzepzioa dena. Hemen eta han jende askok sentitzen du bere bizitzaren kontrola galdu duela eta konplexutasuna kudeatzeko zailtasunaren itoaldiak amorruaren forma hartzen du, baita esanahia sinpleen bilaketarena ere. Garaia ulertu eta kudeatzeko tresnen eraikuntza, gauzak horrela, funtsezkoa bilakatzen ari da politika eraldatzailerako, zerumuga ilusionagarri baten formulazioarekin batera, jakina.

Orain arte azaldutako faktore horiek guztiek “espektatiba kolektiboen krisia” eragin dezakete eta horrekin batera, “disponibilitate kolektiborako unea” deritzon aukera zabaldu daitekeela ere azpimarratu nahi dugu. Krisiek astindutako panorama honetan, ikuskera eta atxikimen politiko-ideologikoen mugak mugi daitezke, eta honek aukera eskaini diezaioke subiranismoari esparru berrietara zabaltzeko, garaian ongi kokatutako erreferente funtzional gisa agertzen bada.

1.2 Frantziako eta Espainiako estatuak

Frantziako Estatua

Frantziako Errepublikak partekatzen du Espainiako Erresumarekin ezaugarri post-inperiala. Biak ala biak inperio izan dira, baina dagoeneko ez dira, munduan izan zuten botere posizioaren nostalgiaren eragina oso handia delarik, menperatzen dituzten herriekiko jarreran. Frantziako Estatuaren kasuan, bestalde, gai izan da bere kolonien gaineko posizioa gaurkotzeko eta interes nabarmenak ditu Afrikan eta beste eremuetan. Joera neo-kolonialista hauek kontrol geopolitiko eta ekonomikoa helburu dituzten eskuhartze militarren bidez gauzatu ditu Frantziako Errepublikak. Horrek afektaturiko herrientzat kolonizazio berri bat suposatzen du. Era berean, logika inperialista honek gerra jauntxoak eta atzerriko potentziak aurrez aurre jartzen ditu luraren lehian. Hare mundu mailan emandako aldaketak, gero eta eraginkortasun mugatuagora eramaten ari dira.

Bestalde, egitarau neoliberalak gogotik astindu du Frantziako Estatua, lurrikara ekonomiko, sozial eta politikoak ekarriz. Alderdi sistemikoen krisia ikusgarria izan da, esaterako, erreferente historikoak erori baitira, berriak agertu diren bitartean. Politika instituzionalarekiko urruntzeak sistemaren zilegitasuna urratu du eta eskuin muturra indartzen joan da, segurtasun indarrak kolonizatuz, ezkerren ahuleziaren aurrean. Egoera honetan, sekurokrazia goitik behera eta behetik gorako ordena ezartzeko logika da, eta paradoxikoki taupada autoritarioa ere antzematen da pandemian hartutako neurrien kontrako protestetan. Tamalez, ez da agertzen norabide aldaketarako aukerarik, ez baitago lidergo eraldatzailerik.

Aintzat hartzekoak dira estatuaren zentralismoaz lotutako krisiak, batetik, herri historikoen aldetik datozenak (Korsika, Britainia, Alsazia...) eta bestetik baztertuta sentitzen diren landa eremuetan indartzen ari den ezinegona. Molac legea aurrera atera izanak eta ondotik hura indargabetzeko gertatutakoak, Frantziako Estatuan orain arte ikusi gabeko zenbait mugimendu eta erreakzio azaleratu ditu. Aukera batzuk ireki daitezke estaturik gabeko nazioetako eta hizkuntz gutxituetako lurraldeetako hainbat eragilarekin harreman bide batean santonitzeko. Edonola ere, gaur gaurkoz, jakobinismoak jarraitzen du izaten joera nagusia eta estatu logika monolitikoa hegemonikoa da.

Halaber, 2018an lehertu zen Jaka Horien (Gilets Jaunes) mugimendua aipatu behar da. Mugimendu horren eskabideak justizia soziala, demokrazia zuzena eta burujabetasunean oinarritu ziren, klase borrokaren gaurkotasunaren adibide argia izanez, elite ekonomiko eta politikoen sistema zalantzan emateko gai izan dena momentu batean. Euskal Herrian, Ezker Abertzaleak halako mugimenduen garapenari begira paper bat joka dezake, eta adi egon beharko gara, mugimendu honen leherketaren arrazoin sozialek irauten dutelako eta pandemiaren eraginez areagotuak izan daitezkeelako.

Espainiako Estatua

Espainiako Erresuman post-inperialitateak forma arriskutsuak ahalbideratzen ditu gaur egun, berriro ere. Egiturazko krisiak areagotu dira: alde batetik eredu sozioekonomikoaren ahulezien aldetik (turismoarekiko menpekotasuna, Europarekiko subordinazioa, lan baldintzen prekarizazioa, pobretze maila larriak, berrikuntza estrategikoen blokeoa...) bestetik, eliteen arteko adostasunak berreskuratzeko zailtasunak eta, finean, zerumuga baten inguruan jendarte babesa egituratzeko ezintasuna.

Edonola ere, Espainiako Estatuaren ahulezia nagusia bere nazio-aniztasunaren ukapen egiturazkoa da. Ukazio horrek tentsioak egonkortu eta sakontzen ditu etengabe. Kataluniaren urriaren leko erreferendumaren ondorengoek ezaugarritzen dute une politikoa. Independentismoa oso indartsua da jendartean, baina ikusi

beharko da nondik nora bideratzen den indar hori egungo testuinguru zail eta ilunean, zatiketa nagusitzen den artean ez baita agertzen errepublika lortzeko estrategia argirik. Espainiako Gobernuarekiko elkarrizketa mahaia blokeoa gainditzeko aukera bat izan daiteke, nahiz eta nabarmena den estatuko eliteen itxikeria.

Bestalde, krisian dago alderdi sistema. M15aren inguruan agertu zen inpugnazio anitzak efektu nabarmenak izan ditu Estatuan, baina agortuta dago joko arauak eraldatzeko gaitasunaren ikuspegitik. PSOE eta ezkerre eskuin autoritarioaren beldurraren inguruan artikulatzen ari da. Eskuina lidergo gerlan eta beste formuletarako trantsizio batean sartuta dago.

Soilik krisiak ixteko ezintasunetik uler daiteke gaur egun Sanchezek lideratzen duen Espainiako Gobernuak, zeinak Unidas-Podemosekin batera -beste batzuen babesaz gain- subiranismoen laguntza lortu duena. Nabarmena da ez duela eredu sozioekonomikoan eragiteko asmorik, ezta estatu nazionalismoa demokratizatzeko gogorik ere, baina egonkortasun ezak aukerak ireki ditu.

Eskuinaren itzulera baztertu ezin daitekeen agertokia da, zein terminoetan izango den jakitea ezinezkoa den arren. Gure burua prestatu behar dugu egoera baterako zein besterako. Funtsezkoa izango da, estatuaren ahulezia nagusiak ongi irakurtzea, haien arabera eraiki daitezkeen aliantza eta konplizitateak lantzeko.

Bien bitartean, autoritarismoa indartzen ari da eremu guzietan, era berezian segurtasun indarretan eta oro har estatu aparatuetan. Tamalez, joera autoritario hauek ezkerrera ere iristen ari dira, aniztasunaren ukatzaile den jakobinismoa errotzen ari baita.

1.3 Euskal Herria

Euskal Herria menpekotasunaren ondorioak pairatzen ari da pandemiak astindutako egoera honetan. Erabaki garrantzitsuenak kanpoan hartu dira, euskal hiztunok bigarren mailako herritarrak garela agerian geratu da eta, gainera, nabarmena izan da sakonean eragiteko bertako agintariak adierazitako gaitasun eza, batez ere Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, non EAJren eragina bereziki kaltegarria izan baita. Zibilizazio krisia irakurri eta erantzun beharrean, egiturazko akats eta apustu pribatizatzaile eta desdemokratizatzaileen berrespena izan da hautua, eta autoritarismoa ezjakintasuna eta interes pribatuekiko menpekotasuna zurrizko estrategia. Nafarroa Garaian ere antzeman dira akats sakonak egoeraren kudeaketan, baina indar harremanak zaila bilakatu du apustu bera egitea, ezker subiranismoak daukan eraginari esker. Lapurdin, Behe Nafarroan eta Zuberoan, berriz, Frantziako gobernuak hartu ditu erabakiak, Frantziako hirigune handien egoeraren arabera, pandemia ohiko jarrera zentralista areagotzeko baliatu duelarik.

Osasungintza publikoaren eta sektore publikoaren egoera ahula, zaintza sistemaren gabeziak eta sektore kalte-tuenen egoera ekonomikoa eztabaidaren erdian kokatu beharrean, sektore ekonomiko batzuen interesak lehenetsi dira. Patronalak krisia baliatu du bere agenda indar gehiagoz inposatzeko. Nabarmena izan da kapitalaren presioen aurreko menpekotasuna, bizitzak arriskuan jartzera iritsi dena. Deslokalizazioen, kaleratzeen, murrizketen eta, oro har, prekarietatearen zabalpen kezkagarriaren aurrean begiak itxi dituzte.

Aldi berean, panorama larria utzi digu krisien korapilatze honek: etxe hustuketak, pobrezia gehiago, espektatiba eza gazteen artean, arazo psikologikoak, lantegien itxiera, langabezia, enpresa eta komertzio txikien hondamendia. Lotura sozialak bultzatu beharrean, indibidualismoa sustatu da.

Zorionez, gure herrian indartsua da jendarte saregintza, eta erreakzionatu egin du, mobilizazioetan, laguntza ekimenetan eta abar, baina azterketa orokorrak kezkarako arrazoiak ematen dizkigu, aipatu joerak gurean ere gora doazelako.

Lurralde eremuka, EAEko kudeaketa kontrolatzea da EAJren hautu estrategikoa, alternatibaren aukera itxiz, eta garbi dago edozer egiteko prest dagoela hori lortzeko. Errelatoaren lehia tresna estrategikoa da haientzat subiranismoa defentsiban kokatzeko eta aliantza politikoen esparrua bere interesen arabera mugatzeko. Bestetik, berriro ere jarri dute mahai gainean estatusaren gaia, baina ez da inon antzematen Espainiako Estatuarekiko konfrontazioan sartzeko asmorik, idatzi bezala, lehentasuna bere botere posizioen defentsa baita. EAJ indar oroz ari da EH Bilduren maniobra gaitasuna mugatzen saiatzen, bai Euskal Herrian bai Madrilan, Kataluniaren borroka subiranistaren indargabetzea bilatzen duen bitartean. PSE eta Unidas Podemos jeltzaleen satelite gisa ari dira gaur egun, eragiteko gaitasun propiorik gabe. PSEren kasuan, eraginkortasun handiagoa du Unidas Podemosek baino, halere, bere apustu nagusia EAJk ordezkatzan duen estatuarekiko leialtasuna eta agenda neoliberalak apuntalatzea da.

Nafarroa Garaian, aldaketaren legealdiaren ondotik PSNk lideratutako gobernuak atzerapausoa izan da. EH Bilduk eta presio sozialek mugatu dute gobernuaren erregimen agenda, eta erregimenaren berrosaketa zaildu da, horregatik bilana kontraesankorra da: aurrerapauso batzuk daude, baita akatsak eta blokeoak ere. Nabarmentzen dira gobernuaren gabeziak: politika fiskala, ekologia, eredu sozioekonomikoa, patronala eta espainiar sindikatuekiko lerrotzea... Baina era nabarmenean euskararen inguruan erakutsi ditu gobernu honek Geroa Bai-aren ahulezia eta PSNren jarrera bortitza. EH Bilduk lorpen handiak ahalbideratu ditu beharrezkoa den heinean, edonola ere, balioan jarri behar direnak.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, Euskal Elkargoak lau urte baino ez dituela oroitu behar da. Lau urteotan instituzio berria abian jartzea eta egonkortzea izan da lehentasuna. Bestalde, nabarmentzekoa da zenbait gairen aurrean Euskal Elkargoa posizio politikoa hartzen ari dela, konponbidearen eremuan edota euskararen kontrako erasoen aurrean, esaterako. Denarekin, indar politiko batzuk Euskal Elkargoaren kudeaketara mugatzeko arriskua dago orain, hasieratik Ipar Euskal Herriaren instituzionalizazio prozesuan hori lehen urratsa baino ez zela argi zegoenean. Horrek zailduko luke beste urrats bat egitea.

Mundu mailan ematen ari diren prozesuen eta tentsio geopolitikoen ondorioz gure herriaren egitura ekonomikoan aldaketa handiak ematen ari dira eta areagotu daitezke etorkizunean. Katastrofe bat da estaturik ez izatea eta gainbehera doazen bi estatu post-inperialen menpe bizitzea. Gainera, ez da antzematen pandemiak azkartutako joerei eta erronkei erantzuteko lidergorik eta begirada estrategikorik, ez dago dogma neoliberalak kolokan jartzeko borondaterik, ez autokritikarik ezta egin beharreko aldaketak bideratzeko gogorik ere. Trantsizio ekologiko-zibilizazionalan, zaintza sisteman, sektore publikoaren indartzean zein egiazko ongizate sistema baten eraikuntzan, burujabetza digitalaren bidean edo euskalduntzean eman beharreko jauzien aurrean, agintarien artean ez da beharrezko sakontasunez aldaketei heltzeko gogorik antzematen.

Joera globaletan aipatu bezala, jendarte joerak ere aldatzen ari dira, eta dagoeneko elementu kezkarriak atzeman ditugu maila ezberdinetan gurean ere.

Horrek ardura erraldoia jartzen du gure gainean. Nazio gisa, nabarmena da estatuen berrekoizpen tresneria gaurkotu eta egokitu den bitartean zailtasun handiak izan ditugula guk nazio eraikuntzan aritzeko. Zerumuga alternatiboa indartzea funtsezkoa da herri gisa aurrera egiteko, balioan jartzeko mugimendu feministaren indarra, tradizio ekologista, sindikatu borrokalariei eraginkortasuna, herri mugimenduaren aberastasuna, sare komunitarioen osasuna, euskararekiko zaletasunaren oihartzuna eta, oro har, elkarrekin hobeki bizitzeko gogo erraldoia.

Azken urteotan urrats garrantzitsuak eman ditugu, zikloa itxi, preso eta errefuxiatuen egoeran aldaketa sakinak, eraginkortasun politiko eta instituzionalaren indarpena, aliantza berrien eraikuntza, ezker abertzalearen birfundazio emankorra... Orube sendoa, zalantzarik gabe, aipatu erronkei aurre egiteko, baldin eta, txosten honetan proposatzen dugunez, urrats berriak emateko konjuratzen bagara. Subiranismoak aukerak ditu hazteko,

bai atxikimen kopuruan baita kualitatiboki ere, eta Sorturen eskuetan dago maila batean erronka horri eustea, gure aliatu eta lagunekin batera.

Hiriburu eta hiriguneak

Euskal Herrirako marrazten dugun agertoki politikoak adierazpen argi eta berezitua du hiriburu eta hiriguneetan.

Mundu osoan, eta Euskal Herria ez da salbuespen bat, metropolizazio prozesua gertatzen ari da. Jendea hirietan metatzen ari da, hiriak zabaltzen doazen heinean. Euskal Herriaren kasuan jada biztanleriaren % 80 eremu urbanoetan eta batez ere kostaldean bizi da. Lurralde antolaketari begira, ñabardura askorekin, Euskal Herriko metropolia Bilbo-Baiona kostaldeko ardatzean kokatzen ari da.

Hiri guztiak garaian garaiko indarrean dagoen sistema ekonomikoaren isla dira. Gure kasuan, gaur egun sistema kapitalista neoliberala inplementatzeko behar duen euskarri fisikoak dira.

Euskal Herriko eskalan, gure hiriburu eta hiriguneetan (Baiona-Angelu-Biarritz, Irun-Donostialdea, Iruñerria, Tuter, Gasteiz edo Bizkaia metropolitanoan) ematen diren prozesu sozioekonomiko eta ideologikoen inguruko lurralde osoa kutsatzen dute. Beraz logika politikoan Euskal Herria irabazteko eremu hauek irabazi behar dira.

Azken mendean gure hiriguneetan egon den hazkundeak, hein handi batean, migrazioan oinarritu da. Behar ekonomikoak tarteko, pertsonak bizi baldintza duinen bila mugitu dira hirietara. Hala, mundu ikuskera eta kultura askotarikoez aberasten ari dira gure hiriak. Nolanahi ere, hiriguneak desoreka handiko espazio geografikoa dira, eta krisian sakondu ahala, desoreka horiek areagotu besterik ez dira egiten ari. Honek, herri sektoreen eta, zeresanik ez, migratzaileen prekarizazio prozesua azkartu besterik ez du egin.

Horrez gain, bada zenbait hiriburu eta hiriguneetan desorekei eta bizi baldintzen prekarizazioari loturiko beste fenomeno bat: hiri barneko migrazioa eta hirietako kanporatzeak. Aldirietako auzuneak erdialdean bizitza garatzerik ez duten langile eta bestelako sektore prekarizatuez betetzen ari dira, eta areago, hirigunetik kanpoko herrietara kanporatuak izaten ari dira milaka herritar, auzoetako ehun komunitarioak deseginez. Aldiri horiek hirien jarraipen bilakatzen ari dira, arestian aipatu dugun metropolizazio prozesu horretan sakonduz. Horrek, gurean garatzen ari diren hiri eredu kapitalista hirietako arazo soil izatetik Euskal Herriko biztanleriaren gehien-go zabalak bustitzen dituen arazo izatera bultzatu du.

Ziklo politiko honetan gehiengoak osatu behar baditugu, gehiengo sozialak artikulatzeko erronka nagusia hiri populatuetan osatu beharko dugu. Ikuspuntu horrek ez luke gutxietsi behar ezker independentistaren proiektu politikoa, gehienbat, herri eta landa eremuetan gauzatzen dela praktika konkretuetan, beraz, lurralde oreka presente izatea ezinbestekoa izango zaigu. Gehiengo horiek arrakastatsuak eta eraldatzaileak izateko, besteak beste, pertsona guztiek hirietan duintasunez bizitzeko behar diren eskubideen jabe izatea eduki behar luke helburutzat. Nazio askapen prozesuak, zalantza barik, gehiengoaren baldintza materialak hobetu behar ditu.

Bestalde, gure hiriguneetako jendarteak aldatzen den heinean, jendarte horren erreferentziak ere aldatzen dira. Horrek gure erreferentzia politikoa eta gure erreferenteak berrasmatzera behartzen gaitu. Sinbolismo eta epika berriak behar dira, baina baita hirigunearekin konektatzen duten pertsonak eta erreferenteak ere. Aipatu erreferentzia horien baitan egungo errealtatetik eta aniztasunetik abiatzen den euskal identitate barneratzailerik bultzatu behar dugu; pertsona guztiei gure herrian duintasunez lan egin, sozializatu eta bizitzeko ateak irekitzen dizkiena. Sentipen identitariotik ere independentziaren beharra eraikitzen delako.

1.4 Azken gogoeta

Gauzak horrela, arrisku eta aukera handiak ageri zaizkigu. Alde batetik, testuinguru honetan aspaldian indartzen ari diren joera autoritario eta atzerakoiak areagotu daitezke. Baina, bestetik, kritika sistemikoa egin eta proposamen demokratizatzaile eta eraldatzaileak kontrajartzeko aukera parez-pare irekitzen zaigu. Berlingo Harresiaren erorketaren garaian normalizatu zen kapitalismoaren nagusitasun morala erabat kolpatuta dago. Azken urteotako astinaldi handiena da, eta 2008ko krisiaren inguruko zilegitasun krisia guztiz itxi gabe gertatu da.

Ez dago inon idatzita egungo egoerak kapitalismoaren joera nagusiak areagotuko dituenik inolako erresistentzia edota alternatibarik gabe. Horretara eraman nahi gaituzte, hori egia da, eta urratsak eman dituzte jada, baina osasun krisi honetan herritarrok inoiz ez bezala jabetu gara sistemaren gabezi ezberdinez, besteak beste, gure gorputzen osasuna zegoelako jokoan. Beste kontu bat da maila politikoan eta ideologiko-kulturalean nola itzuliko den azken urteetan garatu den nekea eta haserrea. Lehia ez dago bukatuta eta gure eskuetan dago gatazka horretan eragitea. Horretarako, Euskal Herrian beste leku batzuetan baino indar harreman hobea dugu, besteak beste, urte luzetan egin den borrokaren ondorioz. Beharrezkoa dugu azterketarako oinarri bat oroitzea: ezker abertzalearen egokipen estrategikoak matxinada ziklo luze baten uztia kontsolidatu eta egoera berriak irekitzeko aukera ireki du. Posizio estrategiko egokian gaude egoera honen aurrean, arazoak arazo, gure ahulezia eta gabeziez jabeturik, eta hau da halako egonkortasun eza kudeatzeko lehen oinarria. Gai gara bai aukera berriak ireki eta irekitakoak baliatzeko, baita eraso berriak edo egoera zailei aurre egiteko ere.

Globalizazioarekin estatuak eta mugak desagertuko zirela esan ziguten teorien gainetik, COVID-19 krisiaren testuinguruan, estatuak eta haien erabaki politikoak nagusitu dira, bai txertoak erosteko unean edota pertsonen kontrako mugak ezarri eta sendotzeko momentuan. Nabarmendu da, beraz, bideragarria dela ekonomia erabaki politikoan menpe jartzea, neoliberalismoaren logika astinduz. Beste gauza bat da hartutako erabakiak, kasu askotan, boteretsuen mesedetan hartu izana. Jakina, estatu erabakiek garrantzia handia hartu duten une berean, gure herriaren gabezi politiko eta ekonomiko guztiak azaleratu dira. Honek guztiak mahai gainean jartzen du, berriro ere, burujabetzaren inguruko lehiaren garrantzia. Are gehiago kontuan hartzen badugu Euskal Herriak bere bizitza materiala sustengatzeko duen gaitasun ezak epe ertainean ataka larrian jar ditzakeela euskal herritarren bizi baldintzak, prozesu globalen menpe baitaude gure beharrak asetzeko bide gehienak.

2. Nazio askapen prozesua ziklo politiko berrian

2.1 Helburu estrategikoak

Sorturen helburu estrategikoa Euskal Herria batua, independentea, sozialista, feminista eta euskalduna eraikitzea da. Proiektu politiko honek gure herriaren garapena bermatu eta jendarte eredu justua, parekidea eta berdinzalea lortzea du helburu; inolako esplotazio eta zapalkuntzarik gabeko Euskal Errepublika eraikitzea, alegia.

Mundu post-kapitalista batera joatea da gure garaiko zerumuga: beste zibilizazio bat behar dugu kapitalismoa, patriarkatua eta kolonialismo eta arrazakeriaren iraupena egiturazkoak direlako, eta beraz, errotiko aldaketak ezinbestekoak direlako. Neoliberalismoaren garaiotan hegemonikoa den alternatiba ezaren ideia borrokatu behar dugu, jakinda, betiere, ez dagoela ideia hori egun batetik bestera desagerraraziko duen lelo magikorik. Gainera, COVID 19ren pandemiaren shock traumatikoak itzal apokaliptikoak indartu ditu planeta honetan bizi garenon gainean. Errotiko eraldaketaren erreferentzialtasuna eraiki behar dugu, beharra eta une berean, aukera gisa ager dadin. Horretarako, diagnostiko kritikoaz gain ideien lehian aurrera egin, gehiengoan eraikuntza, egitarau bideragarria eta antolakuntza sendoa behar dira.

Ezker abertzalearen sorreran nazio borroka eta klase borroka txanpon beraren bi aldeak zirela ebatzi genuen; jakinda, beti ere, klase borroka historiaren konstante bat dela, baina, Euskal Herriaren biziraupena ez dagoela bermatuta. Gure hipotesi estrategiko horretatik dator burujabetzaren aldeko errotiko taupada. Zorionez, erre-karen ura aldatuz doa, ur korrante berriekin elikatzen baita, historiaren joan etorrian. Burujabetzaren taupada erroko aldaketa sozial eta politikoarekin lotzen den heinean, gure hipotesi estrategikoa askotariko zapalkuntze-kin osatu eta txirikordatu behar da, etengabea, eta mugimendu emantzipatzaileen ekarpena bildu, egun, krisi ekologikoa, zaintza krisia, arrazakeria, indarkeria matxista eta bestelakoak ekuaziora ekarriz.

Sortu erakunde independentista, feminista, ekologista, euskaltzale, antirrazista, antifaxista, sozialista eta, beraz, antikapitalista da, beste zapalkuntza eta menperatzeekin etengabea uztartzen den kapitalismoa guztiz kaltegarria eta inmorala baita, planeta bera arriskuan jartzera iritsi delarik. Sortuk hautu antikapitalista pragmatikoa egiten du, hau da, eraldaketa kapitalismotik harago joan eta beste eredu bat eraikitzeko bide gisa irudikatzen du. Gurean, burujabetze hautua da zerumuga post-kapitalistara joateko ibilbidearen gakoa, jendarte borroka askatzaileen artikulazio zerumuga partekatu indartsu eta emankorra baita Euskal Errepublikaren eraikuntza.

Gaurko talka nagusia kapitalaren eta bizitzaren arteko lehia gisa ezaugarritzen dugu. Alegia, egiturazko zapalkuntza anitzekin bukatzeko (zapalkuntza hetero-patriarkala, arrazakeria, planetaren suntsipena...) tresna eta helburua da burujabetza indibidual eta kolektiboa. Bestela esateko, burujabetza pertsonal eta kolektiboa

da gure baliabide natural, material, sozial, linguistiko eta kulturalen gaineko hausnarketa kolektiboa egin eta erabaki libreak hartu ahal izateko tresna. Askotariko zapalkuntzen aurrean, burujabetza alde anitzekoa dela ulertzen dugu, elkar eragiten dioten aldagaiez osatua.

Gauzak horrela, gure egitasmo estrategikoen gauzatzea eraikuntza prozesu gisa ezaugarritzen dugu. Gure zeregina da horretara iristeko baldintzak eta errealitateak sortzea gaurko egunetik: jendartearen balioak aldatzea, herritarren antolaketa eta ahalduntzea sustatzea eta oinarri material berriak eraikitzen joatea. Mundua bera amildegira eraman duen zibilizazio kapitalista-patriarkal-kolonialaren ordeztu, herritar ororen bizitza duina eta bizigarria izan dadin, komunismo ekofeministaren zerumugan inspiratutako jendarte eredu berriak esperimentatu eta sakondu behar ditugulakoan gaude.

Herri honek estatua behar du hori guztia ahalbidetzeko eta, horrenbestez, Euskal Errepublika sortzeko behar den herri prozesua sustatzea eta antolatzea da Sorturen egitekorik behinena. Prozesu independentista burura eramateko indarrak artikulatu eta ibilbide demokratikoa urratzea, alegia.

Era berean, oraino herri zapaldua garenez gero, Euskal Herriaren biziraupena bermatzeko, nazio askapen mugimenduak erakutsi dituen konpromiso, ardura eta eskuzabaltasuna geure egiten ditugu eta, beste sektore batzuekin batera, gure herriaren mesedetan lehentasunez jardungo dugu. Herririk gabe ez dagoelako inolako herri proiektu posiblerik.

2.2 Fase politikoaren ezaugarritzea: burujabetzarako bidean, botere harremanen sakoneko eraldaketan bila

Egungo fasea, agortua baina indarrean dauden marko juridiko-politikoetatik burujabetza berreskuratzeko igarobide luze gisa ezaugarritu dugu.

Bi hipotesiren baitan murgiltzen gara. Batetik, burujabetza maila gorena -Euskal Errepublika- erdiesteko, Frantziako eta Espainiako Estatuiekiko haustura mailak derrigorrezkoak direla aldarrikatzen dugu. Izan ere, gaur egun ez da prestasunik inon antzematen borondate demokratikoren araberrako sezesiorako biderik onartzeko. Horregatik, bi aukera baino ez daude, dela estatuak behartu beren burua demokratizatu eta gure herriaren autodeterminazio eskubidea aitortzera, dela nahikoa baldintza eta behar besteko indar harremana sortu Euskal Errepublika bateranzko bidea alde bakarrez egin ahal izateko. Biek ala biek gaur egungo indar eta botere harremanen sakoneko eraldaketa eskatzen dute ezinbestean.

Horregatik, bestetik, burujabetzarako bidea modu dinamiko eta gradualean gauzatuko den botere metatze prozesu gisa ulertzen dugu, burujabetza prozesua bizkortzeko eta muturrera eramateko gaurdanik baldintza egokiak sortzeko. Sezesiorako baldintzak sortu bitartean, eta jauzi hori bera egiteko, beharrezkoak diren tresnak -estatu egiturak- garatzeko prozesua, hain zuzen.

Ikuspegi horri erantzuten dio, bada, fase politiko honi ezartzen diogun helburuak: 60 urteko borrokaren bidez sortu ditugun baldintzak kristalizatzea, subiranismo eraldatzailea hegemonikoa egiteko behar den bloke historiko soberanista eta aurrerakoa artikulatzea. Bide horretan, gero eta indar gehiago metatu, orduan eta aurreratuago eta independentziaz gertuago egongo da une bakoitzean lor dezakegun burujabetza maila.

2.3 Nola egin? Gure estrategiaren oinarriak

Gure oinarri estrategikoek abiapuntu jakin bat dute: irabazteko bokazioa. Edo, bestela esanda, prozesu politiko bururaino ahalezkoa egitea da gure zeregina. Horregatik, errealtateari atxikia egon behar du. Hori gabe, nekez egingo baitugu aurrera.

Gutxienez, honako aldagai hauek kontuan hartu behar dira:

- Barne errealtate ezberdinak daudela eta, horrenbestez, erritmoak ezberdinak izango direla ere.
- Indar harremanen ikuspegitik, gehiengoak oraindik eraikitzeke daudela.
- Oso zalantzazkoa dela estatutik gabeko nazioen auziari konponbidea emateko Estatuarekin aukera demokratikorik izanen denik.
- Aldebakarreko bidea nazioartean aitortua eta legitimatua izateko gutxieneko baldintza batzuk bete behar direla: prozesua baketsua eta demokratikoa izatea, gehiengoetan oinarritua egotea, oraingo instituzioetan kokatua egotea eta akordiorako borondatea erakustea, behin eta berriz.

Subjektuei dagokienez:

- **Indarrak metatu eta artikulatu** behar ditugu, subjektu eraldatzailea eraikitzeko -bloke historiko subiranista eraldatzailea-, gehiengoak osatzeko bokazioarekin. Herritarren atxikimendua bildu eta gehiengo independentista-soberanista zabalena eraikitzea baita prozesuaren aurrerabiderako eta burujabetza markoak zein Euskal Errepublika bera erdiesteko berme bakarra.
- **Euskal Herria prestatu** behar dugu, Euskal Herritik Euskal Herrirako estrategia baten bidez. Horrela, estatu izateko nahia piztu behar dugu, batetik, eta estatu izateko oinarriak jarri behar ditugu, bestetik: nazio kontzientzia sortu, lurralde artikulazioan sakondu, eremu estrategikoak indartu eta egungo instituzio eta egitura guztiak prozesuaren zerbitzura jarri, besteak beste.

Bideari buruz:

- **Trantsizio ikuspegia** ematen diogu gure prozesuari, botere metatzean oinarritzen delako. Egunez egun eta maila guztietan gure posizioa hobetzea eta burujabetza tresnak eskuratzea eta alternatibak eraikitzea dira gakoak. Gero eta botere gehiago metatu, orduan eta indar harreman hobeagoa izango dugu eta burujabetza prozesuan aurrerago egongo gara.
- **Aldebikotasuna jorratu eta aldebakartasunerako prestatu** behar gara, biak ala biak baliagarriak izan daitezkeelako, baita une batean uztartu ere, strategiaren baitan. Aldebakartasunerako prestatu behar gara prozesuaren giltza estatuen esku utzi nahi ez badugu. Gainera, gero eta indar gehiago bildu horretarako, orduan eta aukera gehiago sortuko dugu aldebiko aukera zabaltzeko. Eta aldebikotasuna jorratu behar dugu estatuen posizioa higatu -borondatea ez duten bitartean, bederen- eta aldebakarreko aukera legitimatzeko, Euskal Herrian eta nazioartean. Horretarako, konponbide demokratiko adostu bat eskaini behar dugu, behin eta berriz.
- **Borroka logiken uztarketa.** Euskal Herriaren naziogintzan eta estatugintzan sakontzeko, estrategia askatzailearen aldeko borroka hausturaren, sinbiosiaren eta zirrikituaren logikak konbinatu behar ditu, testuinguruaren, indar korrelazioaren, lurraldearen eta momentuan momentuko strategiaren arabera pentsatuz eta praktikan jarritz. Batetik, haustura edo aldebakartasuneko praktikak beharko ditu, lekuan leku eta mo-

mentu politikoaren arabera posiblearen mugak zabaltzeko, ekintza desobedienteak sustatuz, horiek tresna eta ez helburu gisa ulertuz. Bestetik, zirrikituak identifikatu eta sustatu behar ditu, botere sozial era berriak eraiki asmoz, statu quoaren bazter, tarte eta zirrikituetan eraldaketa esparruak zabaltzeko: kontraboterearen mugak kontuan izanik. Azkenik, sinbiosi bidezko etengabeko eraldaketekin, borrokatutakoa erakundetu behar du, Euskal Herriaren naziogintza eta estatugintzan sakontzeko.

- **Agertoki berriak zabaltzea** da politika eraldatzailearen eginbehar nagusia, une zehatz batean ikusten ez diren baldintzak sortzea, aldaketaren bidea ahalezkoa egiteko. Horrek bereizten du statu quoaren kudeaketa hutsetik, bai eta auto-erreferentzialak diren eta eraginkortasunik ez duten mugimendu eta dinamiketatik ere. Horregatik, borroka arriskatzera ere badela ulertzen dugu, printzipio ideologiko hutsen erosotasun esparrutik atera eta errealtatearen lokatzetan sartzea, aldaketarako agertoki eta baldintza berriak sortzeko.

Eta nola egingo dugu?

- **Estrategia nazional-konfederala** da gurea. Euskal Errepublikaranzko bidea esparru administratibo bakoitzeko indar harremanari egokitu beharko zaio eta, beraz, esparru horietako bakoitzean erritmo ezberdinak izango ditu. Hala, hiru prozesu eratzaile jorratu behar ditugu (espazio administratibo bakoitzeko bat) eta, horrekin uztartuz, eraikitze/trinkotze nazionalerako dinamika bat, nazio subjektua artikulatzea eta gure burujabetzaren oinarri material eta sinbolikoak eraikitzea helburu duena. Euskal Herria/Euskal Nazioa iparorratz eta itsasargi dugula, Sorturen ardura izango da gure estrategiaren oinarri eta ardatz izan behar duen nazio eraikuntzaren dinamika sustatzea.
- **Instituzioak eta herri bulkada**, biak ala biak dira beharrezko prozesu subiranistak aurrera egin dezan eta arrakastatsua izan dadin. Prozesu subiranistak behar du gehiengo sozial bat, maila elektoral eta instituzionalean adieraziko dena, instituzioen boterea prozesuaren zerbitzura jarri ahal izateko. Eta gehiengo horren aktibazioa ere eskatzen du, antolakuntza eta mobilizazio iraunkorra.
- **Polarizazioa, mobilizazioa eta konfrontazioa** ezinbesteko tresnak dira hautabide independentista hedatu eta prozesu politikoa elikatzeke. Gure helburua da konfrontaziora eta are desobedientzia ekimenetara ahalik eta herritar gehien biltzea, konfrontazioa herri gisa egin eta ahalik eta eraginkorrena izan dadin. Horregatik, aldeabarako urratsen kasuan bezala, uneak, gaiak eta moldeak ongi aukeratu beharko ditugu.
- **Herriarekin konektatu** behar dugu. Horretarako, funtsezkoa da, batetik, aldarri eta mugimendu emantzipatzaileak Euskal Herriaren burujabetzaren aldarriaren bueltan artikulatzea eta, bestetik, herritarren behar eta kezkei erantzutea. Hau erabat lotua dago garaia eta garaiko erronken irakurketa eta kudeaketa egokiarekin. Independentziaren egitasmoak garaiko beharrei erantzun behar die, garaiko alternatiba errotiko eta ausart eta, une berean, bideragarri gisa agertzeko.
- **Aliantzetan, pragmatismo estrategikoarekin** jokatu behar dugu, askotariko harremanak garatuz eta neur-tuz uneoro askapen prozesuan aurrera egiten ari garen ala ez.
- **Denbora gure alde jarri** behar dugu. Esan dugunez, ziurrenik, lehenago edo beranduago aldebakarrez egin beharko dugu aurrera. Alta, aldebakarreko urratsek estatuekiko talka dakarte, eta ez edonolakoa. Beraz, ongi prestatu behar dugu eta ongi aukeratu jauzi hori/ek egiteko unea, arrakastatsua eta, are gehiago, behin betikoa gerta dadin/daitezen. Eta, horretarako, denbora behar dugu.

Herri zapaldua izanik, baina, denbora gure kontra ere badoa, gure herriaren biziraupena bermatzeko nahiko baliabiderik gabe, Frantzia eta Espainiaren pean asimilatuak izateko mehatxu etengabeari aurre egin behar baitiogu. Horregatik, behar dugu Euskal Herriaren biziraupenari eta herri prozesuaren indartze strategi-koari erreparatuko dien estrategia iraunkorra, denbora gure alde jartzeko.

2.4 Nork egin? Subjektuak, aliantzak eta zuzendaritza

Fase politiko honetarako subjektu eragileak

EH Bildu eta EH Bai

EH Bildu eta EH Bai dira ezkerreko subiranismoaren erreferentzia politiko-instituzionala eta beraiei dagokie protagonismo nagusia, indarrak bildu eta artikulatzeko. Sorturen ustez, orain arteko urratsetan sakondu eta oraindik esparru zabal eta askotarikoak biltzeko bitarteko izan beharko lukete, XXI. mendeko herritar batasun edo nolabaiteko fronte zabal gisa eratzeke helburuz.

EH Bildu eta EH Baik hegemonia -sozial, politiko eta elektorala- lehiatu behar dute eta alternatiba politiko-instituzional sendo bat osatu, Euskal Herriko maila guztietako instituzioak gobernatzera iristeko bokazioz. Dena, helburu argiarekin: instituzioak herritarren interesen eta prozesu subiranista eraldatzailearen zerbitzura jartzea, jendarte justua eraikitzeke bidean.

Ziklo politiko honetan, eta aipatu zereginiei begira, EH Bilduk eta EH Baik izan behar duten protagonismoa aintzat hartuta, aurreko fasean ezker abertzaleak betetzen zituen zenbait zeregin, gaur egun, bi antolakunde hauek egin behar dituztelakoan gaude, beste inor baino prestatuago daudelako horretarako:

- Euskal herritarrei beren proiektu eta proposamen politikoak aurkeztu.
- Ezkerreko subiranismoaren -ezker independentista barne- erreferente publiko nagusia izan, hala proiektzio publikoari, nola masa mobilizazioei dagokienez.
- Ezkerreko subiranismoaren komunitatea herri batzarretan bildu.

Herri mugimendua, mugimendu sozialak

Herri mugimenduak edota mugimendu sozialak euskal jendartearen emantzipaziorako tresna estrategikoa da, egungo botere harremanak zalantzan jarri eta jendarte berriaren eraikuntzan diharduelako. Herritarrak ahal-dundu, jendartearen balioak eraldatu eta, oro har, sakoneko aldaketak eragin eta alternatibak eraikitzeke bidean funtsezko zeregina du. Bestalde, azpimarratu behar da aldaketak gauzatzeko tokian tokiko estrategietan herri mugimenduek eta mugimendu sozialek duten garrantzia, bai eta proiektu komunitarioak eraikitzeke.

Herri mugimenduek edota mugimendu sozialek hezurmamitzen dute herria, eta beraz, herriaren taupada eta une berean eraikitze tresnak dira. Derrigorrezkoa da euskal askapen prozesurako herri mugimendu anitz, sendo eta eraginkorrak eraikitzea, etengabeko dinamika eta eboluzioan egon behar direnak, sortzen diren behar eta erronka berriei erantzuteke. Herri mugimenduak eraldaketa tresnak ez ezik lehia esparruak ere badira, eta horrela ulertu behar ditugu, instituzioak-herri mugimenduak harremana termino dialektikoetan ulertuz, kontua ez baita bata ala bestea aukeratzea, bien arteko tentsioa onuragarritzat hartuz oreka onena bilatzea baizik.

Prozesu subiranista eraldatzailean, herri mugimenduei eta mugimendu sozialei dagokie jauzi kualitatiboak egin ahal izateko aukera berriak irekiko dituzten baldintzak sortzea, indar harremanen aldaketan eragingo duten mugimendu sozialak piztuz eta mobilizatuz, esaterako.

Euskal Herrian herri mugimenduaren adierazpen ugari dago. Herri mugimenduek duten izaera eraldatzaileagatik Sortuko militanteok horietan jardungo dugu, gero eta sendoago eta antolatuagoak izan daitezen lagunduz. Horretarako, gure lana, eskarmentua eta ikuspegia eskainiko ditugu, mugimendu bakoitzaren autonomia eta erabakigunea errespetatuz betiere.

Sortu / ezker abertzalea

Aurreko biekin batera, euskal nazio askapen mugimenduaren tradizio historikoa eta bere helburu estrategikoak ordezkatzeko dituen antolakundea behar da, askapen prozesuaren ikuspegi osoa -integrala- duelako. Gainera, borroka komunitate sendoa da, erradikaltasun ibilbide batean sortu eta garatu dena eta errepresio eta erasoen gainetik aurrera egin duena.

Sorturen egitekorik behinena hamarkadotan gorpuztu den egitasmo emantzipatzailea bururaino eramatea da, beste mugimendu emantzipatzaile eta eraldatzaileetatik -feminismoa, ekologismoa, LGTBI mugimendua, mugimendu antiarrazista...- ikasiz eta ekarpenak bilduz.

Sorturi dagokio, ezker abertzalea osatzen duten LAB eta Ernairekin batera, ezker abertzalearen kultura politikoaren eta balioen onena Euskal Herriak egun dituen erronken zerbitzura jartzea: borrokarako grina, herriarekiko konpromisoa, herrigintzarako sena, ikuspegi eta praxi nazionala, kolektibotasuna, leialtasuna...

Ezker abertzalearen tradizio historikoa altxor bat da eta halakoxea da ere balore eta kultura politiko horretan hazi eta hezi den komunitate politikoa. Sortuk arreta berezia eskaini behar dio ezker abertzalearen komunitateari, askapen prozesua dinamizatzeko eta euskal nazioari bulkada berri bat emateko nukleo militante sendoa delako. Horretarako, Sortuk bere komunitatea etengabe elikatu, kohesionatu, zabaldu, saretu eta aktibatze baliabideak jarriko ditu, herri batzar eta bestelako elkarguneak eskaintzetik hasi eta komunitate horren identitate eta pertenezia sentimendua areagotuko dituen Sorturen erreferentzia eta proiektio publikoa indartzeraino.

Sortuk EH Bildu/EH Bai eta herri mugimendua sustatuko ditu, ekarpen politiko-ideologikoa eta militantea eginenez, beraiek direlako prozesu subiranista eraldatzailearen protagonista nagusiak. Halaber, Sortuk lan egingo du subjektu independentista eraldatzailea artikulatzeko.

Aldaketarako bloke historikoaren eraikuntza

Aipatu hiru subjektu multzoekin batera, burujabetza prozesua bururaino eramateko behar-beharrezko jotzen dugu herri gehiengoaren eta aliantza zabalen artikulazioa, trantsizioa gauzatuko duen bloke historikoa, alegia.

Kontzeptua argitzearen, bloke historikoa deritzogu une, erronka edota lurraldeen arabera forma anitzak har ditzakeen eta aldaketa esanguratsuak eragiteko gai litzatekeen aliantza-espazioen multzoari. Etengabe eraikitzen ari den subjektua da, unean une eragile politiko, sindikatu eta herri mugimendu ezberdinak bil ditzakeena. Ez da, beraz, argiki mugatuta dagoen mugimendu bat, ezta talde itxi bat ere. Esparru irekia da, etengabeko dinamismoan dagoena eta atxikimendu maila ezberdinak bilduko dituen.

Noranzko eta logika batez ari gara, beraz, eta ez horrenbeste bloke formal batez. Azken urteotako ibilbideak erakutsi dizkigu epe motzean halako izaera formal eta estrategikoa lukeen blokea osatzeko dauden zailtasunak. Horren esperoan egoteak eragile zenbaitekiko (EAJ edo ELArekiko, esaterako) menpekotasuna baizik ez du sortzen. Oztupo horiek altxa daitezke, berriz, proposatzen dugun artikulazio zabala eta dinamikoaren bidez.

Sortuk inizatibaz jardungo du une oro, aipatu bloke historikoaren alde. Irizpide horien baitan garatuko du bere aliantza politika, pragmatismo estrategikoarekin, unean une neurtuz zerk laguntzen duen prozesua eta zerk ez.

Zentzu berean, burujabetza prozesuaren gidaritza partekatua osatzea da gure bokazioa. Alegia, bloke historikoa osatzen dutenak ahaldu eta prozesuarekiko ardura partekatua izatea.

3. Datozen urteotarako ortzimuga bat eta bost erronka

Ikusi dugunez, aukeraz eta arriskuz beterik aurkezten zaigu datozen urteotarako agertokia. Lehia garrantzitsuak egongo dira, globalak batzuk, gertuagokoak besteak. Ziurgabetasun garaiak dira, denbora gutxian dena azkartu eta alda daiteke. Etorkizuna ez dago aurrez idatzita, beraz, baina ez dago gure esku bakarrik ere. Ahalegina egitera goaz, anbizioz egitera ere, abagunea subiranismo eraldatzailearen mesedetan jartzeko.

Datozen urteotarako lan hipotesi bat dugu, ortzimuga bat: euskal jendartearen sektore zabalen sentimendu, gogo eta beharrekin bat egin eta aldaketa politiko eta sozialaren bidera uholde berri bat erakartzea. Astindu erraldoi honetan, askotariko borondateen artikulaziorako euskal unea sortu nahi dugu, norbera etorkizunean proiektatzeko aukera eskainiko duena eta, era berean, horretarako bide -egingarri- bat proposatzen duena. Eraldaketa nahi dutenek Euskal Herrian ikusi behar dute mundua aldatzeko aukera; baldintza okerrenetan daudenek, berriz, Euskal Herrian aurkitu behar dute babestokia.

Finean, egiturazko krisiek eta kapitalaren ofentsibak ezaugarritzen duten zikloari erantzun eta aldaketa politiko eta sozialerako palanka bilakatu behar ditugu. Horretarako, ezkerreko independentismoak borrokaren lehen lerroan egon behar du eta proposamen konkretuak eskaini. Ezkerreko independentismotik eta herri mugimenduetatik prekarietatearen aurka eta eraldaketa sozialaren aldeko agenda partekatua eraiki behar dugu, burujabetzarekin lotuz eta borrokan dauden sektore sozialen artikulazioa bilatuz.

Zentralitate politikoan kokatu behar du ezkerreko subiranismoak bere burua. Amildegitik urrundu eta beste norabide bat hartzeko egitasmoaren adierazpen gisa aurkezteko gai izan behar dugu. Ez da bazter batera joateko unea, bataila inoiz aritu ez garen esparruetara hedatzekoa baizik.

Funtzionaltasunean dago gakoa. Subiranismoak aldaketa bideragarri baten aukera jarri behar du eztabaida kolektiboan, eta horretarako, egungo espektatiba markoa gaingitu behar du, orain arte ezinezko zirudiena, posiblea ez ezik, beharrezko eta komenigarria ere badela erakutsiz.

Horretarako, bost erronka:

- Hegemonia subiranista eraldatzailea eraikitzeko bidean, aldaketarako herri espektatiba sortu behar dugu, nazio proiektuan kokatua eta eraldaketa-demokrazia-burujabetza kontzeptuetan ardaztua; ziurgabetasun garaiotan, etsipenari eta joera kontserbadore eta autoritarioei kontrajarriko zaiena.
- Nazio identitatea sendotu behar dugu, eta horrekin nazio bulkada berria sustatzera goaz, Euskal Herriaren oinarri materialak hobetzea eta oinarri kultural berriak barneratzea eta indartzea helburua izango dituen.

- Europako zenbait herritan (Eskozia, Irlanda, Kanaky) eta Katalunian burujabetza eta autodeterminazioa eskuratzeko ematen ari den pultsu politikora batu behar gara. Konfrontazio horren helburua bi hipotesiren baitan finkatzen dugu: burujabetza eskuratzeko bidean agertoki -lorpen- berriak eskuratzea, ala estatuen posizioa higatu eta gurea indartzea, Euskal Herrian nahiz nazioartean.
- Euskal preso politikoak Euskal Herriratzeko fasea itxi eta euskal preso, iheslari eta deportatu politikoak etxeratzeko urrats erabakigarriak egitea. Ezker abertzalearentzat ikuspegi politiko eta humano batetik garrantzi handikoa izateaz gain, presoek etxeratzeak prozesu politikoari bultzada berri bat emango lioke.
- Ezkerreko independentismoa indartu behar dugu, mugimendu gisa eta antolakunde bakoitza estrategia independentista eta testuinguru sozial berrira egokitzeko bidean sakonduz. Eta Sortu bera ere antolakunde gisa indartu behar dugu, militantez hornituz, eta auto-diagnostiko feminista aintzat hartuta emakumeen militantzia sustatu eta bermatzeko tresnak garatu behar ditugu. Honek ezkerreko independentismoa gorpuzten eta mugimendu gisa eraginkorrago bihurtzen lagunduko du.

4. Ildo politikoa

4.1 Euskal Herriak Euskal Herrira, nazio bulkada

Sortuk estrategia independentista iraunkorra garatu behar du, arnas luzekoa, burujabetza formala eskuratzeko prozesuaren egoera edozein delarik ere -geldiune eta are atzerakadak gerta daitezkeelako-, gure posizioa etengabe indartuko duena. Areago, estrategia horretan zenbat eta gehiago sakondu, orduan eta indar harreman hobia izango dugu estatuekiko konfrontazioari eta burujabetzaren aldeko pultsuari ekiteko garaian.

Euskal Herria, helburu eta abiapuntu. Nazio proiektuaren erreferentzia

Faktore anitzen ondorioz, azkenaldian apalduz joan den Euskal Herriaren erreferentzia biziberritu behar dugu datozen urteotan. Horretarako behar da, batetik, euskal jendartean herri anbizioa berpiztuko duen ortzimuga partekatua, eraldaketarako gogoak gorpuztuko dituen proiektua. Hori izan behar da, EH Bilduren kasuan bere kongresuan erabaki bezala, datozen urteotarako EH Bilduk eta EH Baik duten zeregin nagusienetako bat: eskaintza politikoa berritzea. Bertan bildu beharko lirateke Euskal Herriak garaiko erronkei erantzuteko datozen 10-15 urtetan egin beharko lukeen trantsizio handirako plana eta horretarako egin beharko litzatekeen ibilbidea -prozesu edo trantsizio subiranista-.

Eta behar da, bestetik, komunitate sentimendua indartuko duen herri-nazio identitate eta iruditeria partekatua. Norabide horretan, azkenaldian nazio identitatea berritzeko egiten ari garen gogoetan sakondu behar dugu, besteak beste, egun Euskal Herrian dauden askotariko identitate kolektibo eta pertsonalei orube komuna eskaintzeko.

Euskal Nazioaren eraikuntza askapen hautua da eta horrela ezaugarritu behar dugu gure jendartean. Honek eskatzen du epe luzeko eta unean uneko jarduerak garatzea, bai gure aldetik zein beste eragilerekin batera, nazioa elkarrekin bestela bizitzeko gogoaz lotuz. Pertenentzia sentimenak hezurmamitzen du komunitate politiko bat, elkarrekin bizitzeko gogoak ahalbideratzen du instituzioak partekatzea, eta, beraz, gure garaiko erronken araberrako naziogintza garatu behar dugu, euskal afektu motibatzaileen forma hartu behar dituen, hau da, gero eta jende gehiagorengana iristeko eta eragiteko gaitasuna izango duena. Honek eskatzen digu iruditeria, ikurrak, errituak, musika, kultura, artea eta beste hainbat mailatan pentsatu eta jardun, bulkada berriak ahalbideratzeko.

Adibidez, nazio identitatea indartzera bidean, euskal kirol selekzioen ofizialtasunaren aldeko dinamikak indar handia izan dezake, gure herriaren ikur eta oso jendarte sektore zabalek partekatzen duten gogoak den heinean.

Herri kohesioa indartzeko, *elkarrekin hobe* ideia edo filosofia errotu nahi dugu, komunitatearen batasunean, elkartasunean eta lankidetzan oinarritua. Herritarrok elkarrekin hobe, nor bere aldetik baino; euskal herritarrok elkarrekin hobe, lurralde bakoitza isolaturik baino; borroka askatzaileak elkarrekin hobe, zatiketan gelditu baino; euskal subiranistak elkarrekin hobe, sakabanaturik baino.

Euskal Herriaren eraikuntza eraldatzailea

Euskal Herria menpekotasunaren ondorioen mehatxupearan bizi da oraino. Bizirauterik izan badu, aurreko hamarkadetan eremu estrategikoetan egon den herri bulkadaren ondorioz izan da. Bulkada horren arrastoa apaltzen ari da, baina, eta agortze zantzuak gero eta agerikoagoak dira, mehatxu eta erronka berriak agertzen ari diren denbora berean. Eremu estrategikoak (euskalgintza, hezkuntza...) biziberritzeko bulkada berria ematea dagokigu, garaiko erronketara egokitua, aurrerago, ildoaren lurreratzearen atalean xehatuko dugunez.

Herri-bulkada horrek mugimendu estrategiko eraldatzaileak -feminismoa, ekologismoa, langile mugimendua eta arrazakeriaren kontrakoa, besteak beste- eta horietatik mahai gaineratzen ari diren erronkak bildu beharko lituzke, euskal egitasmo eraldatzailean kokatzeko.

Horietan guztietan aurrerapenen bila abiatu beharko ginatekeela uste dugu, herri-agenda baten baitan. Nola, labait, belaunaldi-erronkak finkatu eta horietan mugarri berriak ezartzen ahalegindu: hezkuntzan, zaintza ereduan, euskararen normalizazioan, trantsizio energetikoari ekiteko, herritarren lan eta bizi baldintza duinak bermatzeko, indarkeria matxista erauzteko, kontsumo eredia errotik eraldatzeko, osasun zerbitzu publikoa, doakoa, nahikoa, unibertsala eta integrala eskainiko duen osasun sistema nazionala eraikitze...

Dena, burujabetza prozesuarekin lotuz, egun posiblea dena eta beharko litzatekeenaren arteko marraren bi aldetan ibiliz. Bestela esanda, egungo markoaren baitan dauden aukerak baliatu behar ditugu, muturreraino baliatu ere, herri gisa orube berria jartzeko, batetik; eta markoaren mugak agerian utzi behar ditugu, bestetik, burujabetzaren beharra azalarazteko; bai eta, zenbaitetan, markoaren muga horiek gaingitu praktika desobediente kolektiboen bitartez.

Sortuk herri-akordioak sustatzera eta aipatu aldaketen alde borrokatzera joko du, egon badagoen indar eraldatzailea eraginkorra bilakatze aldera.

Independentismo-subiranismoaren barneratzea instituzio, boteregune eta jendarte esparru guztietan

Independentismoa presente egon behar da ahal den esparru estrategiko guztietan: bizilagun elkarteak, guraso elkarteak, merkataritza-ganberak, kirol-taldeetako zuzendaritzak, sindikatuak, enpresari elkarteak, administrazio publikoa, unibertsitateetako kontseilu errektoreak...

Alde batetik, independentismo eraldatzaileak komunitatearekiko zerbitzu bokazioa duelako eta horretarako baliagarri izan daitezken eremu guztietan egon behar duelako. Eta, bestetik, independentismoak boterea hartzeko estrategiaren baitan, horietan guztietan eragiteko gaitasuna izatea funtsezkoa delako, are eta gehiago herri gisa urrats erabakigarriak egin beharko diren unean. Azken batean, ahal diren tresna guztiak prozesu politikoaren mesedera jartzeaz ari gara.

Zeregin hau oso presente egon behar da gure antolakundearen maila guztietan, nazio egituretatik herrietaraino, lehentasunak finkatuz eta plan zehatzak diseinatuz. Alta, boteregune eta jendarte esparru guztiek ez dituzte ezaugarri berdinak eta beraz berariazko hausnarketa eta planteamendu estrategikoak egin beharko ditugu boteregune bakoitzari dagokionez, egoteaz gain eragiteko.

Euskal Herriaren artikulazioa

Gure estrategia konfederal-nazionalaren baitan, euskal lurraldeen arteko artikulazioa gure ildo politikoaren arreta gune garrantzitsua izan behar da datozen urteotan. Ekintza plana zehaztu behar da horretarako, hala maila politiko-instituzionalean nola sozialean, lurraldeen arteko dinamika kohesionatzaileak sustatu eta herri sentimendua indartzeko. Era berean, erakunde nazionalak bultzatu behar dira, Udalbiltza bezala, baita Euskal Herriko herrialde ezberdinetako harremanak sustatu ere.

Arestian aipatu bezala, *elkarrekin hobe* delako ideia edo filosofia zabaldu nahi dugu, euren burua abertzale-tzat ez dutenek ere, euskal lurraldeen arteko maila guztietako lankidetzat modu natural eta funtzionalean ikus dezaten.

Bestalde, lurraldetasunaren gakoak aipatzean, hiru lurraldeen arteko zatiketa dugu gogoan, baina beste batzuk ere ez ditugu ahazten: hirigune nagusien berezitasunak, beste lurraldeekiko harreman konplexuak, biztanle hustuketa zonalde batzuetan, eskualde batzuen berezitasunak, Trebiñu... Horien gaineko gogoeta egin behar dugu aurrera begira Euskal Herriaren hezurmamitzean aurreratuko badugu.

Zentzu horretan, Sortuk eremu ezberdinen berezitasunak kontuan hartuko ditu bere jardura zehazteko garaian (erritmoak, plan politiko zehatzak...), izan beren garrantzia demografikoarengatik, izan ezkerreko independentismoaren pisu sozial eta elektoral mugatuarengatik edo izan bestelako arrazoi espezifikoengatik.

Burujabetzak, behetik gorako prozesuak

Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko borroka burujabetza formala -legalki eta instituzionalki Euskal Errepublikan ahalbidetuko duen arau multzoa- eskuratzetik harago, eremuz eremu burujabetza materialak berreskuratzeko borroka ere bada. E egunaren zain egon gabe, gaurdanik Euskal Herria eremuz eremu eraikitze borroka. Erronka botere banaketa iraultzea da, bertan botere gehiago bilduz eta botere hau demokratizatuz eta herritarren esku jarritz, eta Espainiako eta Frantziako estatuetan gero eta gutxiago.

Horrengatik diogu burujabetzak pluralean eraiki behar ditugula. Hamaika direlako maila lokalean nahiz nazio mailan berreskuratu beharreko burujabetza esparruak. Honetan ere ez gara zerotik abiatzen; izan ere, Euskal Herriaren sen komunitarioak askorako eman du. Hamaika dira dagoeneko martxan diren proiektu inspiratzaileak. Sorturen ustez, Euskal Errepublikaren bidean beharrezkoa da hauetan guztietan sakondu eta izaera honetako proiektu gehiago sortzeko apustua egiten jarraitzea.

4.2 Burujabetza formalaren bataila

Lehenik eta behin, momentuaren garrantziaz jabetu behar dugu. Batetik, Espainiako Estatuan lurralde auziaren eztabaida parez pare irekita dago. Hori gertatzen da, gainera, Espainiako Estatuaren krisi sakonaren testuinguruan -besteak beste, alderdi nagusien arteko zatiketaren adierazten dena- eta Espainiako Gobernuak subiranismoaren beharra duen unean.

Frantziako Estatuan egoera berdina ez den arren, lurralde auzia eztabaidagai dago hainbat naziotan (Korsikan, Alsazian, Breitanian, Kanakyn...) eta horrek, Frantziako Estatuaren izaera zentralista eta jakobinoarekin talka egiten du. Bestaldekik, krisi politiko nabarmena bizi da alderdi guztietan eta atxikimendu galera gero eta sakonagoa da.

Pandemiak burujabetzaren beharra azalarazi du eta pandemia osteko egoeran emango diren eztabaidetan elementu zentrala izan daiteke.

Kontrara, baina, herri gisa ez gaude behar bezala prestatuta. Arrazoi ugari direla medio, azken urteetan nazio gatazka lausotu da (Hego Euskal Herrian). Horregatik, ezkerreko independentismoak ahalegindu behar du nazio gatazka berpizten eta bere dinamika politiko eta sozialaren erdigunean jartzen, Frantziako eta Espainiako estatuekiko konfrontazioa indartzeko.

Burujabetzaren eta autodeterminazioaren aldeko pultsu politikoa

Espainiako Estatuan ireki den aukeran eragin nahi dugu, dela burujabetza eta autodeterminazioa eskuratzeko bidean urrats esanguratsua egiteko, dela gure posizioa indartzeko, Espainian egon daiteken gobernurik aurre-rakoiak ere gatazka politikoari konponbide demokratikoa emateko borondaterik ez duela erakutsiz.

Horretarako, funtsezkoa da bataila politikoa elkarrekin jokatzea, Kataluniarekin, Espainiako Estatuko beste nazioekin eta, are gehiago, Europako estaturik gabeko nazioekin.

Artikulazioa eta batera jotzea dugu erronka beraz, Llotja de Mar akordioaren garapenaren bidez eta masa mobilizazio bateratuen bidez. Horrela:

- Katalanekin batera, eta aukera balego estatuko beste nazioekin batera, gatazka politikoaren konponbiderako proposamen politiko bateratua osatzen ahaleginduko gara.
- Madril eta Bruselaren aurrean bi gehiengo demokratiko eraiki eta paratu beharra dago, ziklo mobilizatzailerik indartsu batez lagundurik.

Frantziako Estatuari dagokionez, lehen aipatu errealtateek agerian uzten dute Ipar Euskal Herriko Frantziako Estatuaren baitako nazioekin batera harreman eta elkarlan esparru berriak irekitzeko aukera eta beharra dagoela eta horretan ahaleginduko gara.

Europako estaturik gabeko nazioen elkarlanari dagokionez, indarra egin nahi dugu Europan erabakitzeke esku-bidea instituzionalizatu eta estaturik gabeko nazioen estatus aldaketa, independentzia barne, ahalbideratu eta legeko bilakatuko lituzkeen argitasun lege bat artikulatzeko.

Euskal Herrian indarrak artikulatu behar dira. Horretarako, lehentasuna burujabetzaren eta autodeterminazioaren aldeko mobilizazio ziklo indartsua zabaltzea da, estatuak ez ezik, Euskal Herriko eragileak ere mugiarazteko gaitasuna izango duena.

Estatus politikoa(k)

Aurrekoarekin batera, estatus politikoaren eztabaida berpiztu behar dugu lurralde guztietan, horretarako forma egokienak bilatuz. Batetik, proposamena eta trantsizioaren formulazioa termino demokratiko eta parte-hartzaileetan kokatu behar da. Bestetik, lurralde eremu bakoitzeko berezitasunei erantzuten dien eredurik onena bilatu behar da. Eta, azkenik, lurraldeen arteko artikulazio urratsei so egin behar zaie.

Estatusen eztabaidak Euskal Herriak egin behar duen prozesu eratzailearen logikan kokatzen ditugu, Euskal Herriak dituen erronkak eta horretarako behar diren tresnak biltzen dituzten heinean. Burujabetza formala edukiz betetzeko eta aldarrikapen eta eskubide sozialak instituzionalizatzeko -lege egiteko- aukera da. Zentzu horretan, oso lotuta egon behar du jendearen beharrezanekin eta garaiko erronka eta eztabaidekin eta ezin da soilik maila politiko-instituzionalean kokatu.

Bestalde, estatus politikoen eztabaidaren arabera ireki daitezkeen prozesuek berebiziko garrantzia dute Frantziako eta Espainiako estatuiekiko pultsuari begira, lurralde bakoitzean izan daitezkeen adostasunek estatuekin konfrontatzeko aukera paregabea irekitzen baitute.

Horrela:

- EAEn abiatutako prozesua berpiztu beharko litzateke, eta garaian adostu ziren oinarri eta printzipioen gainean kokatu berriz. Horretarako, EAJk orain arte jarraitu duen estrategia baldintzatu behar da, presio eta mobilizazio sozialaren bidez, erreforma estatutario huts baterako aukerak mugatuz.
- Nafarroako Foru Komunitatean, estatus politikoen eztabaida irekitzea da lehentasuna, bulkada sozial zabal artikulatuz horretarako. Eraginkorra izango bada, aldaketaren esparruan kokatzen ziren sektoreengana iristen ahalegindu beharko litzateke, aldaketarako gogoia piztuz berriz ere. Horretarako, Nafarroa Garaiko eta bertako herritarren behar eta erronkekin lotu beharko litzateke eztabaida, bizitza erdigunean jarriko duten proposamen erakargarriak jorratuz.
- Ipar Euskal Herrian, autoeratzeko fasean urrats berri bat egiteko, Euskal Elkargotik Estatus Bereziko Lurralde Kolektibitateara jauzi egiteko bidea prestatu behar da. "Berezitasunaren" kontzeptua garrantzitsua da, "bereziaren" kalifikazio orokorra lortuz gero, horren pean gauza daitezkeen koadro instituzionalak mota askotarikoa izan daitezkeelako.

Honetan guztian, Sorturen zeregina ikuspegi integraletik ekarpena egin eta dinamika sozialari bultzada ematea da.

4.3 Burujabetza, eraldaketarako tresna; eraldaketarako gogoia, burujabetzarako palanka

Esana dugunez, burujabetza, demokrazia eta aldaketa soziala uztartzeak berebiziko garrantzia du egungo testuinguruan. Azken batean, burujabetza nahi dugu garaiko erronkei erantzuteko eta, oro har, Euskal Herriko mundu-jendarte eredu berria eraikitzeko. Burujabetzarik ezean mugatuak izango dira beti gauza daitezkeen aldaketa sozialak, horiek ere oso garrantzitsuak diren arren. Eta dena erabaki nahi dugu, dena aldatu ahal izateko.

Pandemiak kapitalismoaren alde anitzeko krisia eta politika neoliberalen ondorio kaltegarriak azalarazi ditu, eta agerian utzi errotiko aldaketak egin behar direla bizitza bizigarria izango bada. Norabide aldaketa bat behar da, bizitza kapitalari nagusituko bazaio, eta horretarako tresna politikoak behar ditugu.

Hori da, hain zuzen, datozen urteotan izango den lehia nagusienetakoa, eta indarrak artikulatu behar ditugu elite politiko eta ekonomikoen aurrean. Horretarako, aldaketarako espektatiba zabaldu eta mobilizazio-borroka zikloa indartu behar da, ofentsiba ikuspegian, aldaketa politiko eta soziala bideragarri egiteko.

Horretarako, Sorturen ustez:

- Aurrerantzean, gure jendarte ereduaren zehazterakoan, proposamen politikoak egiterakoan edota lan eta ildo sozio-ekonomikoa zehazterakoan, garrantzi berezia izango du ondoko hiru dimentsioak barnebiltzea: dimentsio berdea, trantsizio ekologikoari lotuta; dimentsio feminista zaintza lanaren aitortza ez ezik, eredu bera ere birpentsatzeko balio behar duena eta, azkenik, dimentsio soziala edo ekonomikoa aberastasunaren banaketari lotutakoa. Jakina, hiru dimentsio horietan aurrez aurre ditugun erronkei aurre egin ahal izateko, burujabetza politiko eta ekonomikoaren aldeko aldarria eta borroka zentrala bilakatzen da. Honenbestez, arloz arlo eta atalez atal Euskal Herria egituratu eta ekonomikoki ere burujabeago eta askeago egin

dezaketen urrats zehatzak hausnartu, sustatu eta bultzatzeak estrategia sozioekonomiko independentista eraldatzailearen erronka behar du izan ere.

Hortaz, jendarte eredu berri baten norabidean eta aipatu hiru dimentsioetan errotikako aldaketak burutze-ko, trantsizio prozesuak bultzatzea ezinbesteko deritzogu. Horretarako, ondoko ardatzak iparrorratz gisa planteatzen ditugu:

- » Ingurumena eta baliabide naturalak errespetatzeko konpromiso irmoen garaia da. Gure kontsumo maila murrizten hasteko unea iritsi da.
- » Atal produktibo eta erreproduktiboaren arteko zatiketa gainditu eta elkar zaintza eta bizitza duina helburu izango duen eredu (erre)produktibo berria hausnartu eta urratsak ematen hasi behar da. Begirada horrek zeharkatu behar ditu sektore ekonomiko guztien gaineko hausnarketak eta ildoak.
- » Lana(k) banatzea eta ondasunak banatzea helburu dituzten ekimen eta egitasmoek izaera estrategikoa dute guretzat. Langile klasearen interesen kontrako ofentsibaren erdian, langileen interesak, erabaki ahalmena eta gaitasuna aldarrikatu eta borrokatu beharko ditugu.
- » Sektore publiko eraginkor eta eraberritu baten aldeko hautua zentrala da. Politikak eragin behar du ekonomian eta ez alderantziz. Norabide horretan instituzioek ekonomia arautu, zerbitzu publikoak eskaini, politika ekonomiko zehatzak garatu eta estrategikoak diren sektoreetan (ura, energia, zaintza, osasungintza, finantza edo telekomunikazioak) enpresa edota erakunde publikoak bermatu behar dituzte. Ekonomia komunitatearen zerbitzuan eta komunitatearen kontrolpean.
- » Kooperatibismoa eta ekonomia sozial eraldatzailea sustatu eta babestuko duen eredua ere sustatuko dugu. Era berean, behetik gorako, tokiko eta eskualdeko garapen ekonomiko, sozial eta kulturala helburu duen eredua babestu eta bultzatuko dugu.
- Dinamika sozialetik eraldaketarako proposamenak egin behar dira, Euskal Herrian kokatuak:
 - » Euskal Herriak behar dituen sakoneko aldaketak gauzatzeko irismen luzeko proposamenak mahaigainerratu -sindikalismo independentistatik edota mugimendu feministatik plazaratzen ari direnen ildotik- eta erronka gisa finkatu behar dira euskal prozesu subiranista-eratzatzailearen baitan: Euskal Lan Kodea, Gizarte Segurantzza propioa, Zaintza Sistema Publiko eta Komunitarioa...
 - » Oro har, pandemiaren ondorengo testuinguruan krisiari emango zaion norabidean (Europako funtsen erabilera, esaterako) eragin behar da, eraldaketa sozialerako proposamenak Euskal Herrian kokatuz eta herritarren interesen baitakoak izan daitezen borrokatuz.
 - » Horrekin loturik, Frantzia eta Espainiatik etor daitezkeen eztabaida eta neurri sozioekonomikoei -pentsioen murrizketa berriak- Euskal Herriko ikuspegitik erantzun.
- Mugimendu eraldatzaileak euskal eskalara erakarri behar ditugu, euren proposamenak Euskal Herritik eta Euskal Herriari begira egin ditzaten.
- Lan eta bizi baldintzen aldeko borrokaren lehen lerroan egon behar dugu. Pobreziak, langabeziak edota prekarietareak, etxebizitza problematikak eta etxe kaleratze arriskuak... sektore zabalak kolpatuko ditu eta honi aurre egiteko elkartasuna eta elkarlaguntza antolatzea dagokigu. Kapitalismoaren oldarraldiak sortu dituen ondorioak eragiten ari diren haserrea, etsipena... indar eraldatzailea bilakatu behar dugu denon artean, egoera aldatzeko proposamenen eta borrokaren bidez. Era berean, Sortuk, Europako Ezkerraren Alderdiko kide den heinean, Europako ezkerreko alderdien arteko elkarlana, baita koordinazio iraunkorra ere, sustatzen jarraituko du, hausnarketa eta are ekimen politiko praktiko amankomunak jorratu eta, aukeran,

Internazional berri baterako edo dena delako mundu osoko ezkerreko indarren elkarlan zein ekintza esparru amankomun baterako baldintzak sortze aldera.

Sortuk bere misio eta egitekotik bultzatuko du estrategia sozioekonomiko independentista eraldatzailea. Hau da, Sortuk, prozesu independentistan aldarri eta eraldaketa sozialarekiko konpromisoak, Euskal Herriaren bidegarritasun ekonomikoarekiko kezak eta egitasmo komunitarioek beharrezko zentralitatea dutela sustatuko du.

- Protagonismo politiko eta mobilizatzailea esparruko eragileei dagokie. Horregatik, SORTU-ren zeregina izango da, batetik, ezkerreko independentismoa hausnarketa partekatu eta norabide berean aritzen dela bultzatzea eta, bestetik, ildo mobilizatzailea babestea eta dinamika sozialaren artikulazioan laguntzea. Zentzu horretan, ezkerrearen baitan ohikoak diren joera zatikatzaileak gainditzeko lan egingo du.
- Ideien eta balioen borrokaren esparruan arituko da SORTU, kapitalismo patriarkalari alternatiba posiblea eta ezinbestekoa delako ideia landuz.

4.4 Gatazkaren ondorioen konponbidea

Euskal preso, iheslari eta deportatu politikoak etxera

Aurreko kongresuaren testuingurua bi estatuen jarrera hertsia markatzen bazuen, egun esan dezakegu bidea egiten hasiak garela eta urruntzea eta sakabanaketa behingoz amaitzetik gertu egon gaitezkeela. Dena, egoterra -aukera leihoa- ongi irakurri eta ofentsiba oso bat abian jarri genuelako.

Orain beste jauzi bat egitea dagokigu: oraindik dirauen aukera baliatu eta euskal preso, iheslari eta deportatu politikoak etxeratzeari ekin, urratsak behin betikoak eta atzeraezinak izan daitezen. Eta horretarako, duela bi urte zehaztu genituen lau ardatzetan sakondu behar dugu: mobilizazio sozialean, adostasunen eremuan, bide juridikoan eta harreman eta lan diplomatikoan.

Badakigu, ordea, bide hau korapilatsuagoa izango dela. Besteak beste, salbuespen legedia oraindik indarrean dagoelako eta haren baitan aplikatzen ari diren neurri juridikoak lehen mailako oztopo dira euskal preso, iheslari eta deportatuen afera konponbidean jartzeko. Zentzu honetan are garrantzia handiago hartzen du mobilizazio sozialak, Ipar Euskal Herriko dinamika horren adibide.

Etxeratzearen beharra errotu behar dugu euskal jendartearen eta akordio zabalak egin, helburu nagusi batekin: salbuespen legediarekin eta haren baitako neurriekin bukatzea. Bi estatuetako gobernuak, epaileak, fiskalak eta espetxe administrazioa bera garai berrira egokitutako politiketara eraman behar ditugu.

Iheslari eta deportatuei dagokienez, Lizarra-Garaziko Akordioaren garaian abian jarri zen etxeratze prozesuak, oztopo eta zailtasun handiekin bada ere, aurrera jarraitzen du. Deserritik itzultzeko dauden oztopo juridikoen atzean bultzada politiko zuzena dago. Funtsean, deportazioa eta erbestealdia betikotu nahi dira eta horra zuzenduta dago preskripzioaren luzatzearen erabilpen maltzurra. Eremu honetako errepresaliatuen egoera gainditzeko ezinbestekoa da guztien egoera juridikoaren ezagutza ahalbidetzea, preskripzioaren erabilpena baztertzeko eta, azkenik, garai politiko berriaren testuinguruan, nazioartean erabili ohi diren formulak baliatzea, Euskal Herrian arrazoi politikoengatik ihesean edo deportazioan inor gera ez dadin.

Bizikidetza demokratikoa eta biktimak

Sorturen ustez, bizikidetza demokratikoak gatazka politikoaren konponbidea eskatzen du. Alegia, proiektu politiko guztiak -independentzia barne- defendatzeko eta egikaritzeko aukera berdintasuna bermatuko duen agertoki juridiko eta politikoa. Horretan datza Euskal Herrian irekita dagoen eztabaidaren muina. Izan ere, bizikidetza ez da ETaren desegitearekin, preso, iheslari eta deportatu politikoen etxeratzearekin edota biktima guztien aitortza eta erreparazioarekin soilik eraikitzen. Atal horien guztien garapenak lagunduko luke, baina bizikidetza demokratikoak gatazkaren erroari erantzun behar dio eta, horren baitan, gertatutakoa berriro ez errepikatzeko baldintza guztiak bermatu.

Biktimei dagokienez, Sortuk uste du gatazkak eragin dituen biktima guztien aitortza eta erreparazioa beharrezkoa dela. Horregatik, Frantziako eta Espainiako estatuen biolentziak eragin dituen eta oraindik aitortu gabe dauden biktimen errealitatea salatzen jarraituko dugu. Bide horretan, torturaren erabilpen zabala eta sistematikoa aitortu behar dela aldarrikatzen dugu, eta lanean jarraituko dugu ikerketa -Nafarroa Garaia kasuan- eta aitortzaren norabidean urratsak egin daitezen.

Sortuk bizikidetzari, biktimen aitortza eta erreparazioari, preso, iheslari eta deportatuen etxeratzeari eta, oro har, gatazkaren konponbideari begira agertoki berriak irekitzeko inizatibarekin jokatzeko jarraituko du, gure iraganari uko egin gabe, beti ere.

Errepresioa eta askatasun zibil eta demokratikoak

Balantzean esaten genuenez, aurreko zikloarekin alderatuta errepresioaren intentsitatea eta ezaugarriak aldatzen ari diren arren, ezin esan daiteke iraganeko kontua denik. Espainiako Estatuan eskuina eta estatu-aparatuetako sektore boteretsuak norabide horretan urrats berriak ematen ahalegintzen ari direla ikusten ari gara, prozesu politikoa baldintzatzeko helburuz. Ezkerreko independentismoaren kontra eraso berriak etor daitezke, beraz, are gehiago konfrontazio demokratikoa areagotzen bada, eta herri bezala erantzuteko prestatuak egon behar gara.

Bestalde, ematen ari diren eta askotan oharkabea pasatzen diren bestelako errepresio moldeen (isunak, preso ohien erantzukizun zibila...) eta, oro har, askatasun demokratikoen kontrako erasoaren azterketa zorrotzagoa egin behar da, zer nolako erantzuna eman dakieken ebazteko. Izan ere, datozen urteotan autoritarismorako joerak eta askatasun demokratikoen kontrako erasoak areagotuko direla aurre ikus daiteke.

Azkenik, segurtasun ereduari eta polizia ereduari buruzko eztabaida ireki -Ertzaintza, Foruzaingoa eta Udal-tzaingoa- dagokienez- eta bere proposamen politikoa aurkeztu behar du ezkerreko subiranismoak, Frantziako eta Espainiako indar polizial eta militarren presentziaren aurrean, Euskal Herriaren desmilitarizazioa aldarrikatzearekin batera.

4.5 Oroimena

Kongresuak eremu honetan aurrera begira gure jarduna indartzeko abiapuntua izan beharko luke. Oroimenaren gaia erabat loturik dago gure proiektu politikoarekin eta, zentzu horretan, bere garapenean datza iraganaz, orainaldiaz eta etorkizunaz jendarteak izango duen ikusmoldea.

Orain arte egin denaren ildotik, Sorturi dagokio ezker abertzalearen ondare historikoaren baitako oroimena lantzea eta haren kontakizuna egitea, herri borrokalari baten historian oinarrituz, betiere. Azken hirurogei urtetakoa

ez zatekeen gertatuko aurretik herri askapenaren aldeko grinarik egon izan ez balitz. Jarraipen historiko horren baitan kokatu beharko genuke azken hamarkadetan gertatutakoa eta saiatu gaingintzen gainontzekoek egiten duten irakurketa interesatua.

Gure memoria eta errelatoa ez da, beraz, azken hamarkadei edota konfrontazio armatuari lotutakoa soilik, baina agerikoa da horrek duen dimentsioa eta garrantzia ere: gatazkan hildakoak, guda zikina, desagertuak, tortura, atxiloketak... Edonola ere, gure oroimena borrokarena eta borrokatu direnena da. Eta gure kontakizunaren bidez borrokaren balioak transmititu nahi dizkiegu datozen belaunaldiei, borrokaren garrantziaz jabetzeko, eskubideak soilik borroka irabaz daitezkeelako. Zentzu horretan, belaunaldien arteko transmisioa bermatu behar da, baita militante historikoen aitortza egin ere.

Euskal Herrian izan den borroka historiko eta zabal baten parte dira hainbat ekinbide. Horregatik, azken hamarkadetan gure herrian egin diren borroka mota guztiak bere osotasunean joratu beharko genituzke, denek eraldaketa dutelako helburu. Herri baten borroka kontatu beharra dugu, Euskal Matxinada deitu duguna, bertan jorratuz langile borroka, intsumisioa, ekologismotik garatutako borroka, emakume borroka, identitate eta sexu askapenerako borroka eta abar luzea. Denak dira herri borrokalari baten adierazpenak.

Askotan, memoria, biktimak eta bizikidetzak nahasturik agertzen dira eztabaida politikoan, dena "errelatoaren batailak" baldintzatuta. Horretan klase politiko osoak jomuga berdina du: ezker abertzalea baldintzatu eta higitzea. Leporatze eta exijentzien bidez talka giroa hauspotu nahi dute, ezker abertzalea iraganaren ustezko zama askatu ezinean dabilela proiektatzeko. Horrela, burujabetza prozesua galgatu nahi dute. Aipatu estrategiak ezinezkoa egiten du errelato partekatuak eraikitzea. Hala ere, ezkerreko independentismoak eskaintza mantendu behar du, oinarrizko errelato bat adostuz, ondoren bakoitzak berea egiteko askatasun osoa izan dezan.

5. Ildo politikoa lurreratuz

Aurreko atalean gure ildo politikoa bildu dugu, bere osotasunean, eta hori da gure erreferentzia nagusia. Atal honetan, berriz, ardatz estrategikoak xehetasunez bildu ditugu, ardatz horietan egingo dugun lana zer logikaren baitan egin behar dugun argitzeko. Eta, bestetik, gida-proposamen moduko bat osatu dugu, nazio mailan eta lokal mailan gure egiteko nagusiak antolatzeke asmoz.

5.1 Lan ardatz estrategikoak

Gure estrategiaren garapenean aintzat hartu behar ditugu, batetik, Euskal Matxinadaren euskarri historiko emankorrenak, garai batean independentzia eta sozialismoa leloaz lotzen zirenak, nolabait esateko. Txanpon bereko bi aurpegiak ereduak, berriz, logika eraldatzaile konplexu eta errotikoagoetara pasatu gara. Gauzak horrela, gure taupada eraldatzaileen kalitatezko jauziak egiteko gurean nahiz munduan agertzen diren bektore emantzipatzaile nagusiak garatu behar ditugu. Hiru dira bektore hauek: mugimendu feminista, planeta mailako larrialdiaren kontrakoa (ekologismoa) eta kolonialismoa ofizialki gaitututzat eman arren, erabat bizirik dauden harreman kolonial eta arrazisten kontrako ikuspegi dekoloniala, azkenik. Hirurak garatu behar ditugu, besteekin batera garaiko estrategia emankorra garatzeko.

Lan eta bizi baldintzak

Sistema kapitalista patriarkala esplotazioan oinarritutako sistema da, historikoki eta iraunkorki krisi ekonomikoak eragiten dituen. Duela hamar urteko finantza krisiaren ondorioak oraindik ere gaitutu gabe geundenean, eta COVID-19aren osasun krisia jazo aurretik, atzeraldi ekonomikoa iragarrita zegoen.

Prekarietatea, ezegonkortasuna, etorkizun duinerako espektatiba falta eta ondorioz, pobrezian dauden herritarren kopurua handitzen ari da. Krisien kateatzearekin, gainera, geroz eta kronikoagoa bihurtzen ari den egoera da honakoa. Derrigorrez gure ildo politikoan lehen lerroan egon behar duen afera da lan eta bizi baldintzena: lan baldintza prekarioak, behin behineko kontratuak, pobrezia, etxebizitza, zahartzaroa eta honek berarekin dakartzan problematikak...

Esana dugunez, ezkerreko independentismoak lan eta bizi baldintzen aldeko borrokaren lehen lerroan egon behar du eta, pobrezia gero eta sektore zabalagoak kolpatzen ari dela kontuan hartuta, baita elkartasuna eta elkarlaguntza antolatu ere.

Gure misioa izango da sektore horien urgentziatzeko beharrei soluziobideak eskaintzea eta esplotatzaileei espazioak murriztea eta euren posizioa ahultzea. Paraleluki, trantsizio ekonomiko, sozial eta ekologiko justu baterako bidea ere planteatu behar dugu. Burujabetzaren beharra erdigunean izango duen trantsizio proposamena. Errealitate gordin honen erroko arrazoiak deuseztu eta bizitza guztiak erdigunean jarriko dituen eredu berri bat eraikitzeko bide orria izango dena. Hori dela eta, Sortuk eremu honetan diskurtso eta ikuspegi propioa garatuko ditu, salaketa eta aktibazioa bultzatuz.

Feminismoa

Sortuk Euskal Herri feminista du helburu eta, horretarako, ezinbesteko pausutzat du kapitalismo heteropatriarkal kolonialak pribilegio sistema bati eusteko identitate, jatorri, gorputz eta desira anitzen gainean mantentzen duen zapalkuntza sistema gainditzea. Beraz, ez dugu askapen prozesurik irudikatzen emakumeen* eta, oro har, sistema horrek azpiratzen dituen gainontzeko subjektuen emantzipaziorik eta pertsonen arteko parekidetasunik (gaztelaniaz, equidad) gabe. Feminista interseksionalak gara.

Bizitza guztiak erdigunean jartzeak sistema heteropatriakalak bazterreratzen dituen gorputz, identitate eta sexualitate azpiratuak aintzat hartu eta egiturazko indarkeria matxistaren oldarraldiaren aurrean, sistema errotik irauliz eta gorputz eta desiren gaineke burujabetzak borrokatuz.

Burujabetza prozesuak feminismoa barneratu behar du, hots, feminismotik eta feminista izateko bokazioarekin egin behar du bidea. Sorturi dagokio trantsizio feminista indartu eta bultzatzea, honako ardatz hauek indartuz horretarako:

- Borroka eta mugimendu feminista estrategikoak izanik, agenda eta erronka feminista geure egiten ditugu, mugimenduan modu integralean parte hartuz eta aldarrikapenen zeharkakotasuna aintzat hartuz. Bereziki euskal feminismoaren balio eta erreferentzialtasuna sustatuko dugu.
- Ezkerreko independentismo-subiranismoaren esparruari dagokionez, emakume feminista independentisten aliantza esparruetan sakonduko dugu, egungo errealitateak eskatzen duen eredu aldaketa zehaztu eta garatzeko: bizitzak erdigunean jarriko dituen trantsizio proposamena. Jendarte eredu feminista eraikitzeko trantsizioan pultsuak zabaldu behar ditugu: zaintza krisiari aurre eginez, kapitala vs bizitza dikotomia indartuz eta paradigma aldaketa ekarriko duten bideak zabalduz. Bide horretan, egiturazko aldaketak lehenesten ditugu eta horretarako, esaterako, zaintza sistema publiko eta komunitarioa nahiz indarkeria matxista errotik erauzteko proposamenak zehaztu, garatu eta indartzea dagokigu.

Misioa: Tokiz tokiko mugimendu feminista indartzen laguntzea. Zaintza lanen kolektibizazioaren aldarrikapena indartzea, zaintza sistema publiko komunitario baten beharra herri aldarrikapen bilakatzen lagunduz.

Euskalgintza

50eko hamarraldian euskararen berreskurapenari bultzada itzela eman zitzaion, hamarkadak iraun dituen euskararen biziberritze aro arrakastatsuari hasiera emanez. Asko da aurreratu dena, baina agortze zantzuak ere badaude: erabilerak beheranzko joera hasi du, ezagutzaren moteltzea antzeman daiteke, komunikabide edota hezkuntza esparruen mugak -euskara ez da irakas-hizkuntza kulturalki geroz eta konplexuagoa den hezkuntza sisteman. Are gehiago, D ereduek ere ez dute inolaz ere bermatzen behar adinako euskara gaitasuna- nabarmentak dira euskalduntzeari dagokionean... Horrez gain, digitalizazioak edota kulturalki inoizko Euskal Herri pluralena izateak erronka berriak ekarriko dituzte euskalduntzearen borrokara.

Euskalduntze prozesuan fase berria irekitzea beharrezkoa da. Euskalduntzearen gisako erronka bat herri mugimenduaren bultzadaz baino ezin gauza daiteke. Euskararen alde egitea korrontearen kontra egitea izan da orain arte eta hala izango da aurrerantzean ere. Horregatik, gai honen politizazioa eta euskararen aldeko tentsio militantea areagotzea funtsezkoak izango dira. Horretarako, Sortuk premiazko du mugimendu euskaltzalearen biziberritzea. Horrez gain, ezinbestekoa deritzogu administrazio publikoek euskalgintzarekin elkarlanean garaiko erronketara egokitutako hizkuntza politika berria martxan jartzea; zeina euskararen lurralde bakoitzaren ezaugarrietara egokitu beharko den.

Euskara ez da komunikazio tresna hutsa. Euskara euskal herritarron identitate ikur eta mundu ikuskeraren erokale ere bada. Euskarak komunikatzeko adina balio behar digu gure mundu sinbolikoa eta afektiboa garatzeko ere. Eta kulturak mundu horietara iristeko bideak ireki behar ditu, herri kontakizuna birsortzearekin batera. Horregatik diogu inoiz baino gehiago euskarak eta euskal kulturak elkarri eskutik emanda egin behar dutela bidea.

Misioa: Euskalduntze fase berriak behar duen mugimendu arnasberritua artikulatzen laguntzea. Tokiz toki elkarte/mugimendu/dinamika euskaltzale berriak sortu eta indartzen laguntzea.

Ekologismoa

Bizi dugun garaia ezaugarri nagusienetarikoa da muga gabe hazten ari den sistema kapitalistaren eta mugatua den planetaren arteko talka. Honezkero ukaezinak dira krisi ekologikoaren eta klimatikoaren ebidentzia zientifikoak -besteak beste, IPCCren azken txostenak jaso duen bezala- edota hauen ondorio latzak -muturreko eguraldi pasartearen areagotzearekin antzeman den gisara-.

Zibilizazio moduan egun ditugun ekoizpen, kontsumo eta bizi ereduen erroko eraldaketak eta materialen eta energiaren kontsumoa murrizteak soilik berma dezake ataka honetatik irabazle ateratzea eta hau gure bizitza aldatzetik pasatzen da: bestelakoan kolapsora goazelako. Ezin pentsa dezakegu, ordea, errealtate gordin honek automatikoki jendea erroko eraldaketa horren bidera ekarriko duenik. Horregatik egoeraren larritasuna azaleratzeaz gain, herritarren gehiengoarentzat eraldaketa bide justua planteatzea izango da giltzarria. Horregatik, erroko eraldaketa hori langileak eta herri sektoreak abiapuntu eta helburu izatea bultzatu behar dugu, hegoalde globalaren espolioa geldituz egitea, eta estrategikoki eta demokratikoki planifikaturikoa izatea. Izan ere, krisi egoera orotan gertatzen den legez, jarrera kontserbadoreak -are ekofaxistak- areagotzeko arriskua ere egon badagoelako.

Euskal Herria tradizio ekologista aberatsa duen herria da. Azken hamarkadetan borroka eta mugimendu ekologiko esanguratsuak bizi izan ditugu: Lemoizen, Itoitzen, Baztanen Aroztegiaren proiektua gelditzeko, Abiadura Handiko Trenaren aurka, Francking-aren kontra Araban, erraustegiaren aurkakoa Gipuzkoan, Bizi! Mugimendua- ren jarduna... Aitzitik, Euskal Herria aztarna ekologiko handia duen herria da. Euskal Herriko garapen eredia jasangarria, justua eta orekatua izatetik oso urrun dago. Hor gure aurkia eta ifrentzua.

Kolosala den erronka honek pareko erantzuna behar du. Neurri instituzionalak beharko dira, baita gutariko bakoitzak gure bizitza ereduak eraldatuz har ditzakegun konpromisoak ere. Baina, horien gainetik, Sorturen ustez, klima larrialdiaren afera erdigunean jarriko duen Euskal Herriko mugimendu ekologista garaikidea eraikitzea da garrantzia handieneko egitekoa. Horrekin batera, ezinbestekoak izango dira Euskal Herriaren luze zabalean energia eta elikadura burujabetzan oinarritutako proiektuak garatu eta indartzea.

Beste inon baino beharrezkoagoa da esparru honetan interes ekonomikoei mozorroa kentzea. Bakoitzak badu zereginak bizitza eredia eraldatuz, baina hemen larrialdi ekonomikoari aurre egiteko ezinbestekoa eta derrigorrezkoa da kapitalismoa eraldatzea.

Misioa: Euskal eskalako mugimendu ekologista artikulatzen laguntzea. Tokiz toki dinamika ekologista antolatua sortzen laguntzea.

Migrazioak

Gizakion historia migrazio historia da eta gurea ere migrazio prozesuak bizitako pertsona ezberdinez osatutako herria da. Mendeetan zehar egoera ekonomikoak bultzatutako migratuak, gerra ezberdinek bultzatutako erbesterratu zein jazarritako pertsonak, edo euskal lurraldeetara 60ko hamarkadan bizimodu hobearen bila etorritako herritarrak gara gu, besteak beste.

Geroz eta gehiago dira beren sorlekuak utzi eta migrazioaren bidea hartzen duten pertsonak, pobreziatik, generatik, sexu eta identitate jazarpenetik edo klima larrialditik ihesi bizimodu hobe baten bila; mendeetako praktika kolonialaren ondorio dira. Datozen urteetan, migrazio fluxuek gora egingo dutela diote prospekzio guztiek, desberdintasun sozialak geroz eta handiagoak baitira, ipar/hego arrakala geroz eta zabalagoa.

Askapen mugimenduak ikuspegi dekoloniala barneratu behar du. Gizarte mendebaldarra da gurea, lehen munduan bizi gara. Bizi garen botere sistema honetan dugun posiziotik heldu behar diogu gaiari hain zuzen: Aintzat hartuz lehen mundua deritzoten horretan kokatzen dela gure herria; eta, aldi berean, euskaldunok mendeetako kolonizazio saiakerei aurre eginez heldu garela XXI. mende honetara. Hiru lan ildo garatuko ditugu datozen urteetan, zehar-lerroko ikuspegitik landuak:

- Migratzaileek migratzeko duten eskubidearen alde jardungo dugu. Migrazio seguruaren alde egiteko konpromisoa hartzen dugu.
- Eskubide eta betebeharrak berberak nahi ditugu Euskal Herrian lan eta bizi diren herritar guztientzat. Halaxe ulertu izan dugu herritartasuna historikoki, eta autoritarismoa, xenofobia eta arrazakeria berpizten ari diren garaiotan, inoiz baino gehiago sustatuko dugu jendarte aniztasuna, azaleko multikulturalismo neoliberalaren gainetik.
- Gure herrira lan eta bizitzera datozen migranteak euskal herritar diren heinean, herri eraikuntzaren parte egiteko bideak landuko ditugu, eredu sozial eta ekonomiko justu baten alde subjektu aktibo bilakatzeko.

Misioa: Xenofobia eta arrazakeriaren aurkako mugimendua euskal eskalan artikulatzen laguntzea. Migrazioak, migranteekin batera, protagonismoa areagotzea askapen mugimenduan.

Hezkuntza mugimendua

Euskal herritarrok ez daukagu Euskal Herriaren errealitate linguistiko, kultural eta sozioekonomikoen beharrei erantzuteko hezkuntza sistema eredurik. Gure herrian dauzkagun hezkuntza sistemak Frantzia eta Espainiako estatuen legedien menpekoak dira, estatu horien interesen arabera eraikiak, eta ez Euskal Herria edota euskal herritarron interes zein beharren arabera eraikiak.

Hezkuntza sistema eredu horiek, jada pandemia baino lehen agortze zantzu nabarmenak erakusten ari baziren, COVID-19ak egiturazko arrakalak handitu eta are ageriago utzi ditu. XXI. mendean XIX. mendeko hezkuntza sistema ereduarekin jarraitzeak dakarren ondorioa. Hori gutxi balitz, testuinguru globalean datozen aldaketa eta erronka handiek nahiz muturreko neoliberalismoaren eta indar erreakzionarioen eskutik datorkigun inboluzio demokratikoaren agerlekuak, hezkuntza eraldaketa premiazkoa ez ezik, ezinbestekoa bilakatu dute.

Burujabe izatea herri urgentzia zaigu hezkuntza sistema ereduaren garapenari dagokionean ere. Hortaz, gure herriaren burujabetza prozesuak eta Euskal hezkuntza sistemaren eraikuntzak eskutik joan beharko dute, batak

bestea behar baitu. Helburu dugun hezkuntza eraldatzaile, konpentsatzaile zein askatzailea erdiestea ezinezko zaigu burujabetzarik eduki ezean.

Ikasle guztien eskubide oro bermatuko duen, eta euskalduna, feminista, eta herritarra eta burujabea izango den hezkuntza-sistema eraikitzeke pausoa bizkortu beharrean gaude, besteak beste egungo ereduak sortzen ari den askoriko arrakalak gainditze bidean jartzeko. Orain, trantsizio adostu baten alde ekitea dagokigu. Konpromiso historiko berrituak oinarri, adostasun sozial berriak eraikitzeke garaia da, sare bakarreko Euskal hezkuntza-sistema publiko burujabe baten inguruko adostasun sozial berria, hain zuzen ere. Bide horretan ezin besteko garrantzia izango dute hezkuntza komunitateak eta ikasle mugimenduak besteak beste.

Misioa: Tokiz toki herri hezitzaileak antolatzen laguntzea, euskal hezkuntza prozesua berdintasunaren eta ekitatearen aldeko borrokarekin lotuz.

Herrigintza eraldatzailea eta burujabetza(k)

Ardatz honek ildo politikoaren gauzapean material, praktiko eta eraldatzailea bultzatzen du.

Gure proiektu politikoa gaurdanik eraikitzeke apustua egiten dugu. Lan ardatz praktiko planteatzen dugu borroka ideologikoan eragina izango duena. Aldi berean gaur egun egiten dugunari dimentsio politikoa emango dio.

Burujabetza(k) inplementatzeko ardatz moduan planteatzen dugu, lurraldeari lotuta. Lurralde burujabetzek hurrengo oinarriak izango dituzte: Bultzada komunitarioa izango dute. Euskal Herria marko mental gisa hartuko dute. Behar materialei erantzuna emango diote Ekonomia Feminista eta Ekonomia Sozial Eraldatzailearen ikuspegitik. Gobernantza/instituzio eredu berrietan sakonduko dute lurralde eskala guztietan. Nazio Eraikuntza eta estatugintza klabeetan gure militanteak eta komunitatea aktibatuko ditu.

Aipatu dugun moduan lan ardatz hau lurraldeari lotuta egon behar da eta gaur egun 4 eskaletan landuko ditugu burujabetzak:

- Auzoa eta Herria. EH bilduk planteatu duen udalgintza herrigileari ekarpen komunitarioa eta eraldatzailea egiteke helburuarekin (Adb. Udalgintza herrigilea). Hiriguneetan auzogintza piztu eta artikulatzeko (Adb. Zaintza sareak).
- Eskualdeak. Eskualdeetan ematen ari diren edo sortu daitezkeen proiektu eraldatzaileak bultzatzeko eta elikatzeko edota arazo espezifikoei erantzuten dituzten prozesuak indartzeko (Adb. Pirinioak, Enkarterri, Aiaraldea, Bidasoa, Goierri..).
- Hiriburuak. Hiriguneetan proiektugintza eraldatzailean ekarpen kualitatibo eta kuantitatibo egiteke (Labore, Geltoki, Bira, Laba...)
- Euskal Herria. Gure herriak burujabetza materiala eskuratzeko behar dituen baliabide eta erronken inguruan gogoeta egiteke eta pausu praktikoak emateke sektore estrategikoetan (Telekomunikazioa, Energia, Finantzak...). Bi Estatuen baitako muga administratiboak gainditzen joan eta Proiektu Estrategiko Nazionalak gaurdanik eraikitzeke.

5.2 Gure misioari ekiteko gidoi proposamena

Jarraian agertzen den koadroan gure misioa identifikatzeko ahalegina egin dugu, gure lana antolatzeke gidoi moduko bat proposatuz. Argi dago, hala ere, hor agertzen den guztia ezin dela herri guztietan bere osotasunean garatu. Zer nolako logika jarraitu nahi dugun da gakoa. Finean, Sortu tresna politikoa gisa ulertu behar dugu, nagusiki bere lan militantea eskaintzen duena.

Nazio mailan	
Nazio susperraldia: bulkada komunitarioa sustatu	Independentismoa jendarte esparru guztietan murgildu
	Abertzaletasun modernoari ekarpen politiko kualitatiboak eman
	Estrategia(k) eskaini
Pultsu politikoa indartu	Erabakitze eskubidearen aldeko pultsua indartu
	Lan eta bizi baldintzen aldeko borroka indartu (borroka sozio-sindikala, zerbitzu publikoak, etxebizitza eskubidea, migranteak, pentsionistak...)
	Herri gisako jauziak sustatu
	Aurreko eremu guztietan indarrak artikulatu
Garaiko mugimendu sozial eta herrigintza eraldatzaileari norabidea eskaini	
Presoak, iheslariak eta deportatuak etxeratzeko urrats kualitatiboak gauzatu eta iragan zikloaren gure kontakizuna landu	
Mugimenduaren kohesioa landu eta komunitatea zaindu eta hezi	Konpromisoa: perspektiba eman (berritu, ikuspegi feminista bermatu, herritar batasun izaera indartu -EH Bai/EH Bildu)
	Koadro politikoen formazioa

Lokal mailan	
Burujaibetza prozesuaren dinamika estrategikoak bermatu	Burujaibetza eta autodeterminazioaren aldeko mugimendu sozialak
	EH Bai / EH Bildu
	Lan eta bizi baldintzen aldeko dinamika
Garaiko mugimendu sozial estrategikoak eskala lokalera ekarri: herri mugimendu estrategikoetan antolatu eta herrigintza eraldatzailea sustatu	Lan eta bizi baldintzen aldeko mugimendua
	Feminismoa
	Euskalgintza
	Ekologismoa
	Hezkuntza
	Migrazioa - arrazakeriaren kontrako mugimendua
	Ekonomia Sozial Eraldatzaileko proiektuak
	Euskal selekzioen ofizialtasuna *
Komunitategintza	Independentismoa presente egin herri erakunde eta praktika komunitario guztietan
	Komunitatearekiko zerbitzu bokazioz jardun udalgintza herrigileari zentralitatea eskainiz
Presoen aldeko dinamika bermatu eta iragan zikloaren gure kontakizuna landu	
Mugimenduaren kohesioa landu eta komunitatea zaindu	

* Herri mugimendu estrategikoetan kokatu ez ditugun arren, garrantzia politikoa duten dinamika (Euskal Selekzioaren ofizialtasuna...).

1. Sarrera

Segidan datozen lerroen helburua da antolaketa eta funtzionamendu arloko egokitzapenak zehaztea. Horiek aletu aurretik, baina, hainbat ohar:

- Zohardian finkatutako oinarri ideologikoak eta antolaketa printzipioak (funtzionamendu demokratiko sako-
na; partaidetasuna eta bat etortze zabalaren bilaketa; erritmo politiko eta intentsitate militante ezberdinen
arteko uztarketa; herrien zerbitzurako egitura bat; egituraren egokitzapena errealitate konkretu bakoitzera;
ezker abertzalearen gaitasunen antolaketa; militantziaren zaintza osoa...) berresten ditugu, gaur gaurkoz,
gaurkotasan erabatekoa dutela uste baitugu. Izan ere, balantze organizatiboan jaso bezala, Zohardiaren
intuizio eta hipotesi politiko-organizatibo nagusiak zuzenak ziren, intuizio eta hipotesi horien gauzatzean
balantze ariketan hizpide izan ditugun hutsuneak, zailtasunak, eta are gehiago, kalkulu akatsak izan diren
arren, eta intuizio eta hipotesion gauzatze erabateko eta eraginkorrerako zer egokitu eta zer garatu asko
dagoen arren.
- Ontzat ematen dugu, halaber, Sortu zein ezker abertzale berriaren eraikuntza prozesu ikuspegiaz edota
trantsizio ikuspegiaz jorratzearen ezinbestekotasuna. Balantzean jaso bezala, egiten ari garena ez da batere
erraza. 60 urteko proiektu politiko bat eta komunitate soziopolitiko bat erresistentzia ardatz nagusi duen
paradigma batetik egitasmo baten eraikuntza ardatz nagusi duen paradigma batera eramatea ez da ahun-
tzaren gauerdiko eztula. Migrazio politiko-organizatibo hori prozesu konplexua da, are gehiago estatuek
oztopatzen badute. Ez dago munduan halako esperientziarik. Beraz, ez dago gidalibururik, ez eta erreze-
ta magikorik ere. Intuizioa, entsegu-akatsa metodoa eta ondoz ondoko hurbilketak; ez dago besterik. Eta
pazientzia, pazientzia handia, kultura politiko-organizatibo bat ez baita gauetik goizera aldatzen, aldaketa
kolektiboak eta, areago, pertsonalak eskatzen dituelako (antolatze eta funtzionatzeko moduak ez ezik,
pentsatzeko eskemak beraiek ere aldatzea), eta horiek denbora luzea eskatzen dutelako. Zohardian esaten
genuen bezalaxe, Sorturen eta, oro har, ezker abertzale berriaren eraikuntza urte luzetako prozesu gisa
irudikatu eta ezaugarritu beharra dago, orduan hartutako erabaki batzuk oraindik ere urteetako garapena
eskatuko dutelako.
- Segidan aletzen diren egokitzapenek balantze politiko-organizatiboa dute oinarri eta abiapuntu. Hala, be-
ren helburua da aipatu balantzean identifikatutako hutsune eta egitekoei erantzutea. Zehazki:
 - » Sorturen eta EH Bilduren arteko funtzio bereizketa, batetik, eta Sorturen misioa eta egitekoak, bestetik,
ahal bezainbesteko zehaztasunera eramatea.
 - » Sorturen egitura berraztertu eta birdefinitzea honako arloetan:

- › Nazio zuzendaritza
 - › Ekintza Politikoa-Herrigintza esku hartze lerroen antolaketa/lurraldetze eskema
 - › Barne antolaketaren eta ildo politikoaren inplementazioaren arteko harremana/lotura
 - › Nazioko zein herrialdeko planoen eta tokiko planoaren arteko lotura
 - › Tokiko plana (hiriburuak barne)
 - » Sorturen egitura indartzea, bereziki tokiko planoan, baita, horrekin batera, Sortuko militantzia ahalduntzea eta trebatzea ere.
 - » Oinarri militantea saretzea.
 - » Sorturen proiektzio komunikatiboaren korapiloa ebaztea.
- Bestalde, zehaztapenok, batez ere, Sortuk Hego Euskal Herrian izan beharko lukeen praxiaren perspektibatik eginda daude. Ipar Euskal Herriari legozkiokeen zehaztapenak kanpoan utzi dira, deliberatuki utzi ere. Batetik, Sorturen praxia, nazio erakundea izanda ere, ez delako berdina Hego Euskal Herrian eta Ipar Euskal Herrian; EH Bildu eta EH Bai, baliokideak bai, baina berdin-berdinak ez diren bezalaxe. Eta bestetik, Ipar Euskal Herriari dagozkion zehaztapenak uneotan abian diren mugimendu abertzalearen zein EH Bairen hausnarketa estrategikoen ostean egingo direlako. Izan ere, hausnarketa horien ondorioak eskutan, Sortuk Ipar Euskal Herrian jorratu beharreko praxiaren eguneraketa orokorra egingo du.
 - Azkenik, hizpide ditugun funtzionamendu eta antolaketa arloko egokitzapenetako batzuk Sorturen estatutuen egokitzapen puntuala eskatuko dute. Hala, bada, funtzionamendu eta antolaketa arloko egokitzapenok onartuz gero, horien aipatu itzulpen juridiko-estatutarioa ere onartutzat emango da.

2. Sorturen ezaugarritzeaz

2.1 Sorturen beharraz

Zohardian intuizio nagusi bat jaso zen, azken bost urteotan berretsi egin dena: Sortu eta EH Bildu-EH Bai, biak dira beharrezkoak eta bataren eta bestearen funtzioak bereizi egin behar dira, elkarren osagarri eginez.

Zergatik Sortu? Bi hanka nagusi ditu erantzunak:

- Batetik, ezker abertzalearen tradizio/kultura politiko-organizatiboaren onena (borrokarako grina, herriarekiko konpromisoa, aldaketa integral eta errotikoa borrokatzeko determinazioa, antolaketa zein praxi nazionala, herrigintzarako sena, kolektibotasuna, umiltasuna, eskuzabaltasuna, leialtasuna, elkartasuna, diziplina... Euskal Matxinada deitu dugun borroka zikloan eraikitako logika eraldatzailea, finean) zaindu eta erreproduzitu beharreko altxorra delako, are gehiago egungo garai likidoetan, zeintzuetan indibidualismoa eta arrazionalitate neoliberala jaun eta jabe diren eta, ondorioz, aipatu balio horiek guztiak ahultzen ari diren. Bestalde, ezkerreko subiranismoak hegemonia politikoa eskuratuko badu, EH Bildu-EH Baik gero eta sektore sozial zabalagoak eta pluralagoak bildu beharko ditu, alegia, adarrak ahalik eta luzeen eta zabalaren izango dituen zuhaitza beharko du. Bada, horrelako zuhaitz batek sustrai sendo eta sakonak behar ditu garaiotako haizeen menara egon ez dadin eta, are gehiago, haizeok lurrera bota ez dezaten. Sortuk sustraiak eman behar dizkio ezkerreko subiranismoaren egitasmoari, eta horretarako bermatu behar du herri honetan badela uneoro gutxieneko nukleo/kopuru militante bat aipatu balioetan hezia, garbi duena gure herriak herri zapaldua izaten segitzen duela eta askapen prozesuak badarraiela; baita ere militantzia ez dela jarduera iragankor bat, baizik eta bizitza osorako aukera bat; eta prest dagoena behar den horretan bere onena emateko, bai orain, baita etorkizunean ere.
- Bestetik, askapen prozesua bi erraileko prozesu gisa irudika daiteke. Errailetako batek berehalako bataila politikoarekin du zerikusia; bataila mediatiko, elektoral eta instituzionalarekin; hein handi batean, hemen eta orain posible den horri lotu/mugatu beharra duen eta, zentzu horretan, posibilista, pragmatikoa eta, areago, kontserbadorea den batailarekin. Beste errailak, berriz, arnas luzeko lan politikoarekin; komunitatearen/jendartearen antolaketa eta kontzientziazioarekin; balioen zein kulturaren batailarekin; lehen errail horrek ezinbestean behar duen bulkada sozial eta komunitarioarekin; sakoneko eraldaketa eta herrigintza lanarekin; posible denaren mugak zabaltzera edo, nahiago bada, gaur posible ez dena bihar posible egitera zuzenduriko lan politikoarekin, alegia. Bada, esperientzia historikoak erakusten du eragile bakarrak nekez jorra ditzakeela biak aldi berean arrakastaz. Beraz:

- » Ezkerreko independentismoak behar du tresna bat (EH Bildu/EH Bai) ez bakarrik, baina, bai nagusiki, lehen erraila jorratu eta hegemonia politikoa lehiatzeko, fronte zabala subiranista eta aurrerakoi gisa ezaugarritua, ezkerreko subiranismoaren erreferentzia politiko-instituzionala izango dena eta borroka instituzionala ez ezik, masa borroka ere jorratuko duena.
- » Eta behar du tresna bat (Sortu) ez bakarrik, baina, bai nagusiki, bigarren erraila jorratzeko, askapen prozesua zein uneotan honek behar duen bulkada komunitario-nazional berria sustatzeko/dinamizatzeko, konpromiso handiko militantez osatua, egitura aldetik konpaktua, baina eragimen aldetik handia/zabala, eta ekimen politiko propioa jorratzera baino gehiago, alegia, bere zigilu edo markapean jardutera beharrean, desdoblamendu bidezko dinamizazio/eragiletza politikora zuzendua (Zohardian esaten zen bezalaxe, dinamizaziotzat ulertuta ez epe motzeko dirigismoa, baizik eta epe ertain-luzera begirako norabidetze estrategikoa eta jendartearen/komunitatearen antolakuntzaren sustapena).

2.2 Sorturen misioa

Zer da Sortu finean? Sortu ezker abertzaleko kidegoa saretzen duen tresna politiko-organizatiboa da, modu partekatuan sorturiko irizpide politiko-ideologikoak ematen dizkiona prozesu politikoaren sustapenean egin beharreko lan politikorako.

Horrenbestez, honako lau elementuek hezurmamitzen dute Sorturen misioa:

- Ezker abertzalearen kultura politiko-organizatiboa erreproduzitzea, jarraipena-egokitzea-berrikuntza logikan, kapital historikoa biderkatuz. Kultura politiko-organizatiboa bai, baina proiektu politikoan sakontzea ere bai. Batzen gaituena proiektu politikoa da.
- Askapen prozesuaren integritasuna eta errotikotasuna bermatzea. Sortuk prozesu independentista-eraldatzailea bizkortzeko lan egin behar du, eta horretarako pulstu politiko nagusiari (burujabetza formalaren eta erabakitze eskubidearen batailari, alegia) loturiko dinamizazio lanak egin behar ditu; eta horrekin batera, arestian aipatu arnas luzeko ekimen politikoa jorratu behar du, alegia, epe erdi-luzera begirako norabidetze estrategikoa eta komunitatearen/jendartearen antolakuntza jorratu eta sustatu behar ditu.
- Askapen prozesuak behar duen tresneria sortzea. Sortuk herriz herri eta auzoz auzo askapen prozesua aurrera eramateko beharrezko deritzogun tresneria (EH Bildu-EH Bai, LAB, Ernai, presoen eskubideen aldeko dinamikak, burujabetzaren pulstu formalari eusteko dena delako subjektu edota dinamikak, izaera berriko mugimendu ekologista, euskal feminismoa zein zernahi beste herri mugimendu edota dinamika) eraiki edota indartzea.
- Azkenik, herri honen askotariko adierazpen organizatiboak (bizi lagun elkarreetatik hasi eta instituzioetaraino) askapen prozesuaren zerbitzura jardun daitezten lan egin behar du, eta horretarako independentismoaren barneratzea sustatu behar du jendarte esparru guztietan, bereziki, botereguneetan.

Bada, horrek guztiak hainbat gauza eskatzen ditu:

- Ezker abertzalearen oinarri militantea saretzea eta dagoen tokian askapen prozesuarentzako aktibo izan dadin bermatzea.
- Bi denborazkotasun/tenporalitate oso desberdin uztartzea: epe motzari loturikoa bat; epe erdi-luzera begirakoa bestea.

- Antolakunde honen militanteen gehiengo zabalak militantzia Sortutik kanpoko eragile, dinamika, subjektu edota egitasmoetan jorratzea. Zohardian esaten zen bezala, apenas egon behar duen Sortuko militanterik soilik Sortuko militantea denik.
- Antolatzaileen antolakunde baterantz jotzea. Eskuartean ditugun erronkek, askapen prozesuak, oro har, gure gaitasun militantea eta eragimena esponenzialki biderkatzea eskatzen dute. Labur esanda: garenak baino askoz ere gehiago izan behar dugu. Bada, Sortuk bere oinarri militantea (ezker abertzalearen oinarri militante zabala, azken batean) saretu, aktibatu eta antolatu behar du, eta jokoa banatu, alegia, kide orori misio bat eman, oinarri militante horrek komunitatea/jendartea antola dezan, ez Sorturen baitan, hamaika ekimen, subjektu, dinamika eta egitasmotan baizik [ikus Tokiko planoa].
- Zereginak hierarkizatu, lehentasunak ezarri eta gauza batzuk, zuzenean, bazter uzten ikastea. Aipagai ditugun gauzetako askok (ezker abertzalearen oinarri militantea saretzea, epe erdi-luzera begirako norabidetze estrategikoa jorratzea, komunitatea/jendartea antolatzea...) normalean izaten/hartzen ez dugun denbora/patxada eskatzen baitute, eta denbora, definizioz, mugatua baita.
- Sorturen erreferentzialtasuna, protagonismoa eta esku hartze publikoa indartzea, ideien borrokan eragiteko, gure komunitate politikoa trinkotu eta aktibatze eta askapen prozesura -eta Sortura- militante berriak erakartzeko. Areago, bai gaiei baita moldeei dagokienez ere, esku hartze horrek orain artekoa baino askotarikoagoa behar du. Edonola ere, jendarte zabalarik zuzentzeko garaian, Sortuk EH Bildu-EH Bairi eta herri mugimenduei aitortzen die protagonismo mobilizatzaile eta mediatiko nagusia. Horregatik:
 - » Esku hartze horrek ez die espaziorik kendu/lehiatu behar ez EH Bilduri-EH Bairi, ezta herri mugimenduei ere.
 - » Esku hartze horrek behar bezain justifikatuta egon behar du. Bestela esanda, “balio erantsia” sortzeari zuzendu behar zaio.
 - » Esku hartze horrek puntuala eta kualitatiboa behar du, alegia, gehiago zuzendu behar zaio hausnarketa eta ekimen estrategikoak jorratzeari egunerokotasun politiko-instituzionalaren jarraipenari baino.
 - » Esku hartze horrek medio/kanal ez konbentzionalak baliatu behar ditu: Dinamika Aktibista Propioa, Erria, sare sozialak, agerraldi kualitatiboak eta, bereziki, gure kidegoaren harreman pertsonalak.
 - » Esku hartze horrek gure ohiko hartzaitetik harago iristeko anbizioa eduki behar du, eta, horretarako, unean une komunikatuko duguna eta komunikazio horren molde eta bitartekoak gaurkotuko ditugu.
 - » Esku hartze horrek gazte eremuan inpaktua izatea bilatu behar du, baita ere. Gazteriaren erreferentzia Ernai dela kontuan izanik, Sortuk duen herri ikuspegia gazteriari ere helarazi behar dio. Horretarako gure mezuak egungo belaunaldi erronketan zentratu eta bozeramaletza eta mezu berriak behar ditugu.
 - » Horrek guztiak gure kidegoaren trebakuntza eskatzen du, izan diskurtsoak eratze eta unean nahiz bitarteko komunikatiboen erabilera. Norbanakook dugun komunikazio gaitasuna (gure eremu naturalean, nahiz sare digitalean) gure jardun militantearen erdigunean jarriko dugu.

Askotariko tentsio estrategikoak kudeatzeko gaitasuna izatea. Hala nola, arestian aipatu tenporalitateen artekoa; kaleko bulkadaren eta instituzioetako lanaren artekoa; aldarri partikularren eta egitasmo politiko integralaren artekoa; subirano ez garen artean estatueta eskaletan jorratu beharreko esku hartzearen eta euskal eskalaren aldarrikapen eta indartzearen artekoa; eta, bereziki, hasieran aipatu bi errailen artekoa, alegia, fronte zabalaren zein honek sustatu beharreko bloke historikoaren hedapenaren eta askapen prozesuak ezinbestean behar duen bulkada estrategiko eta errotikoaren artekoa.

2.3 Sorturen egitekoak

Illoaren atalean ikuspegi politiko batetik aztertu ditugu Sorturen egitekoak. Segidan, antolaketa ikuspegi batetik egingo dugu.

Bada, beste behin ere Zohardian finkatu oinarria abiapuntutzat hartuta, eta ikuspegi politiko-organizatibo batetik, bost lirateke Sorturen egitekoak:

Askapen prozesuaren diseinu estrategikoa eta mugimenduaren zuzendaritza

Sortuk, ezker abertzalearen ildo politiko orokorraren hausnarketa, eztabaida eta erabaki markoa den heinean, askapen prozesuaren kartografia edo mapa estrategikoa zehaztu behar du, alegia, zehaztu behar du nondik, nola eta norekin egingo duen ezker abertzaleak bere helburu estrategikoetara arteko bidea. Eta bermatu behar du herri honetan, haren hamaika espresio organizatiboetan, badela gutxieneko nukleo militante bat mapa estrategikoko hori behar bezain garbi duena, alegia, behar bezain garbi duena non gauden, nora goazen eta nola goazen, eta gai dena hori hitz gutxitan azaltzeko. Sortu diseinu estrategikoa egiteko gai izango da bere kidegoa esparru guztietan lanean ari delako. Militantzia borroka ezberdinetan lanean egoteak ematen dio perspektiba diseinu estrategikoa egiteko.

Bada, horretarako guztirako, nazio mailan bi bitarteko nagusi ditugu: urteroko Konferentzia Politikoa (haren bueltako hausnarketa kolektiboa) eta aipatu mapa estrategikoa jasotzen duen Plan Politikoa. Tresna nagusia independentismoaren oinarri soziala da. Harreman horiek ugaltu eta sistematizatu behar dira. Horrez gain, elkarri lotutako beste bi tresna baliatuko ditugu (ari gara baliatzen dagoeneko): Periskopia (askotariko iturrietatik -sozio-ekonomikoak, nazioartekoak, soziologikoak, demoskopikoak...- edaten duen prospekzio gune edo aparatua) eta mugimenduaren talaia funtzioa betetzen duen Norabidetze Estrategikorako Gunea, zeinetan ezker abertzaleko zein, oro har, ezkerreko subiranismoaren baitako antolakunde ezberdinetan diren Sortuko kide kualifikatuak biltzen diren eta zeinaren egitekoa den prozesu independentista-erlantzarearen nondiko norakoez zein mugimendu gisako erronkez hausnartzea. Tokiko planoan, berriz, egiteko honi erantzuteko ikasturte hasierako herri batzarra eta Plan Politiko lokala baliatuko ditugu [ikus Tokiko plano eta Illoaren lanketa eta transmisioa].

Askapen prozesuaren dinamizazioa

Behin askapen prozesuaren kartografia finkatuta, Sortuk prozesu horren exekuzio/dinamizazio lanak egin behar ditu, alegia, Plan Politikoa jasotako zereginak gauzatzen direla bermatu behar du. Bada, horrek hainbat gauza eskatzen ditu, neurri batean misioaren atalean jada jaso ditugunak:

- Prozesu-tresnen zein pulstu nagusiari loturiko dinamizazio lana; alegia, burujabetzaren pulstu formalari, gatazkaren ondorioen konponbideari (bereziki, preso, iheslari eta deportatu politikoen etxeratzeari) eta memoria eta errelatoaren auziari eusteko dinamika, ekimen edota eragileen sustapen edota dinamizazio lana.
- Herri mugimendu/dinamika estrategikoen sustapena. Sortuko kideok lehentasunezkoztat jotzen ditugun herri mugimendu/dinamika estrategikoa indartu behar ditugu, gure konpromisoa, ikuspegi integrala eta indarren artikulaziorako gaitasuna haien zerbitzura jarritz, prozesu independentistan aktibo izan daitezen eta berau eduki erlantzarekin busti dezaten.
- Jendarte-esparru guztietan, botereguneetan, bereziki, independentismoaren barneratzea sustatzea. Barneratze hori sustatzea da Sorturen egiteko nagusietako bat fase politiko honetan. Eta hori egin behar du plan batekin, sistematikoki, metodikoki, auzoz auzo eta herriz herri; arestian esan bezala, denboraren podo-

rioz herri honetako ahalik eta antolakunde eta instituzio gehienek prozesu independentista eta eraldatzailerari ekarpena egin diezaioten.

Bigarren egiteko hau operatibizatzeko, bi bitarteko nagusi izango dugu nazio mailan: Ekintza Politikoa eta Herrigintza aparatu/esku hartze lerro birkontzeptualizatuak, batetik; Herrigintza esku hartze lerroaren zerbitzurako jotzen ditugun Plaza Hutsa eta Sareak, bestetik [ikus Ekintza Politikoa eta Herrigintzaren birkontzeptualizazioa]. Eta beste bi herri mailan: herriko zuzendaritza lantaldea osatuko duten kideen (militante organikoen) jarduera nagusia behar duen hori (oinarri militantearen kideen artean jokoa banatzea zein haletako bakoitzari misio konkretua ematea), batetik; oinarri militantearen zuzendaritza iparorratzen modukoa izan asmo duen barne buletin berria (abagunearen azterketaz gain, berehalako zereginen jarraipena egingo duena eta zeregin horiei begirako irizpideak emango dituen), bestetik.

Ideen borroka

Sortuk borroka ideologikoa jorratu behar du, arestian aipatu terminoetan jorratu ere, alegia, ekarpen puntual eta kualitatibo baten zein medio/kanal berri eta ez konbentzionalen erabilpen baten bidez.

Ideen borroka epe ertain eta luzeko aldaketak gauzatzeko ezinbesteko esparrua da. Ideien lehia aktibismoa ere bada, zentzu komunak borrokatu eta jendartearen sakoneko sinesmenetan eragiten duen heinean. Gaur egungo mundua eraldatzeko, hortaz, neoliberalismoaren, patriarkatuaren eta estatu frantses zein espainiararen zapalkuntzak sostengatzen dituzten ideia multzo nagusiei aurre egiteaz gain, ezkerreko independentismoaren, feminismoaren, sozialismoaren eta, finean, ikuskera demokratiko erradikalaren mundu ikuskera barreiatzeko bitartekoak eskainiko ditu Sortuk.

Beste behin, bi dira egiteko hau gauzatzeko nazio mailan baliatuko ditugun bitarteko nagusiak: Sorturen bitarteko ideologikoa den Erria aldizkaria (eta webgunea), Iratzar Fundazioak dinamizatzen duena, batetik; eztabaia da zehatzak mahaigaineratzea zein mahai gainearen diren eztabaidetan gure posizioa eta diskurtsoa plazaratu ahal izatea ahalbidetzen duen Dinamika Aktibista Propioa, bestetik. Herri mailan, berriz, azken horren herriaraztea izango da borroka ideologikorako bitarteko nagusia [ikus Dinamika Aktibista Propioaren birkokapena].

Trebakuntza zein militantzia eredu berrien sustapena

Sortuk koadro politikoen faktoria izan behar du. Arestian aipatu balioetan zein jarduteko modu konkretuan jardungo duten koadroen faktoria [ikus Zohardia: Sortuko militantearen jokabide arauak]. Sortuk koadro politiko andana hezi behar du, ez bere buruarentzat soilik, edo nagusiki, baizik eta bestelako dinamika, subjektu, proiektu eta abarrentzat; LABetik, Enaitik edota EH Bildutik-EH Baitik hasi eta herri mugimenduetaraino.

Sortuk, bere eginbeharrak garatzeko, erdigunean jarri behar du trebakuntza politikoa, militante guztiak ahalduzatzeko -plan feministari arreta berezia emanaz- eta gero eta eraginkorragoa izateko. Horrek eskatzen du egoeraren diagnostikorako tresnak lantzea, ikuspegi estrategikoa indartzea eta ildoak pentsatu eta gauzatzeko gaitasunak garatzea. Iratzar Fundazioa eta Sorturen arteko elkarlana izango da trebakuntza planak diseinatu eta bideratzea. Era berean, auzo eta herriek beren beharren arabera trebakuntza ziklo eta saioak antolatuko dituzte, egiturarekin eta Iratzar Fundazioarekin batera, herrien eskaerei erantzuteko.

Bada, bi dira egiteko hau gauzatzeko bitarteko nagusiak, Zohardiaz geroztik martxan ditugunak: Iratzar fundazioak dinamizatzen duen Eskola Politikoa, batetik, eta Sorturen praxi feministan zein ziklo eta estrategia politiko berriek eskatzen dituzten militantzia eredu berrien sustapenean kalitatezko urratsa ekarri behar duen Plan Feminista, bestetik.

Ezker abertzalearen komunitatearen eta borroka ibilbidearen zaintza

Sortuk aldarrikatu behar du ezker abertzalearen borroka ibilbide historikoa; eta defendatu, bere argi-ilun guztiekin, ibilbide horren zilegitasuna eta emankortasuna. Bada, zeregin horretan berebiziko funtzioa beteko du Iratzar Fundazioak kudeatzen duen eta urteotan digitalizatzen aritu garen Artxiboak.

Bestalde, zaindu behar du ezker abertzalearen egungo komunitate militantea; zaindu behar du egun eraikitzen ari garen eta, beraz, etorkizun den komunitate militantea; eta, noski, zaindu behar du ezker abertzalearen komunitate historikotzat jo genezakeena; bereziki, komunitate horren baitako azpi-komunitate konkretu batzuk, hala nola presoena (preso diren artean), preso senideena eta bidean gelditu diren kideen senideena. Bada, preso zaintza jorratzeko bitartekoak, azken urteotan bezala, Presoen Batzordea (nazio mailan) eta Presoen arduraduna (herrian) izango dira. Komunitate historikotzat jo dugun horren baitako gainerako azpi-komunitateen zaintza bermatze aldera, berriz, Komunitate historikoaren zaintzarako batzordea (nazio mailan) sortuko dugu. Azkenik, ezker abertzalearen komunitatearen zaintza jorratze aldera, baita berau erreproduzitu eta trinkotze aldera ere, funtsezkoa deritzogu haren zein, oro har, ezkerreko subiranismoaren elkargune liratekeen espazio fisikoen inguruko gogoeta egitea, baita bestelako askotariko elkarguneak antolatzea ere, hala nola herri batzar irekiak, herriz herriko independentzia egunak eta abar.

Zentzu honetan, gazteek osatzen duten komunitateari arreta berezia jarriko dio Sortuk. Horretarako Ernairekin lanketa espezifiko egingo da. Gazteriak Sorturekiko duen atxikimendua indartu eta etorkizuneko euren militantzia Sorturen baitan gara dezaten.

Laburbilduz, Sorturen egitekoak eta nazio zein herri mailan haiek operatibizateko bitartekoak:

Egitekoak			Garapen operatiboa		
		Nazio mailan	Herrian		
1. Askapen prozesuaren diseinu estrategikoa eta mugimenduaren zuzendaritza		1.1 Periskopia (prospektiba aparatua) eta Norabidetze Estrategikorako Gunea 1.2 Konferentzia Politikoa + Plan Politikoa	1.1 Lan urte hasierako batzarra + Plan Politiko lokala		
2. Prozesuaren dinamizazioa		2.1 Ekintza Politikoa 2.2 Herrigintza	2.1 Oinarri militantea saretu/ aktibatu eta jokoa/misioak banatu		
- Prozesu-tresnen dinamizazioa. - Herri mugimendu estrategikoen sustapena. - Independentismoaren barneratzea jendarte esparru guztietan.		- Taillerrak - sareak - Plaza Hutsa	2.2 Barne buletina/Sortu.info berriak		
3. Ideien borroka		3.1 Dinamika Aktibista Propioa 3.2 Erria (aldizkaria eta webgunea)	3.1. Dinamika Aktibista Propioa		
			3.2. ARTibismoa		
			3.3. Ohiko propaganda ekintzak		
4. Trebakuntza/Militantzia eredu berriaren sustapena		4.1 Eskola Politikoa 4.2 Plan Feminista	4.1 Auzoek eta herriek antolatutako formazio mahaiak		
			4.2. Hitzaldi eta mintegiak		
5. Ezker abertzalearen komunitatearen eta borroka ibilbidearen zaintza		5.1 Presoen batzordea 5.2 Komunitate historikoaren zaintzarako batzordea 5.3 Artxiboa	5.1 Presoen arduraduna		
			5.2 Espazio fisikoak		

2.4 Sorturen barne bizitzaz

Subjektuen artikulazioen logikari jarraituz, Sortu subjektu gisa ikusten dugu, besteekin batera artikulatzen dena, subjektu konplexuagoak eraikiz (EH Bildu eta EH Bai, bestelako elkarlan dimentsioak, unekoak, iraunkorragoak...). Bide horretatik, komunitate militanteak subjektu motor gisa ezaugarritzen ditugu, funtsezkoak baitira forma sozial zabalagoak dinamizatzeko eta, beraz, uste dugu nukleo militanteen indarpena derrigorrezkoa dela euskal askapen mugimendua aurrera eramateko. Hau etxetik hasten da, jakina, eta tenorea da gure militantziaren eta komunitatearen garrantzia balorean jartzeko, bizi garen munduan konpromiso iraunkorra, diziplina eta ikuspegi kolektiboak logika nagusien jomugan daudelako. Izan ere, ez dago subjektu kolektiborik militantzia antolaturik eta komunitate zabalen atxikimendurik gabe. Sortu militante eta komunitate zabal baten dinamizatzailerak dugu dagoeneko, eta ezaugarritze hori indartu behar dugu hurrengo urteetan.

Horretarako, antolakundearen barne bizitzan kidego osoaren eta komunitate zabalaren parte hartzea indartzeko mekanismoak ezarriko ditu Sortuk. Bide horretan, helburu horrekin azken urteetan mahai gainean jarri ditugun iritzi trukaketa eta kontrasterako mekanismo ezberdinen emankortasuna eta garrantzia handituko ditugu. Hala nola, herrialdeko arduradun politikoen bilgune diren Bizkarrezurrak eta Komunitate osoarentzako eztabaida eta erabakigune (Sortzaileen kasuan) izango diren urtean behineko Nazio Konferentziak. Horrek guztiak, Sorturen barne aniztasun zabala indartzen lagunduko du. Izan ere, Sortu komunitate anitza da, eta hala izatea nahi dugu, horrek emankorrage egiten baikaitu; une berean, militante komunitate kohesionatuta da, arrazoi berberengatik. Oreka horretarako ez dago errezeta bakar bat. Hainbat proposatu ditugu eta ibilbidean aurkitzen joan beharko da formularik onena zein den, baina argi dago Sortu ezin dela koalizioa edo antzeko zer-bait izan. Barne aniztasun hori adierazteko aipatutako markoak indartu behar ditugu, horrela lortuko baitugu ezinbesteko dugun kohesio handiko antolakunde izatea. Kohesio horren funtsa helburuak, egitasmoa eta erabaki kolektiboekiko leialtasunaren inguruan eraikitzen da, eta hor kokatuko dugu, beraz, gero eta antolakuntza sendoagoa izateko erronka.

3. Sortuko militantziaz

Zohardian finkatu militantziaren ulkerera zabalean berresten gara. Alegia, Sortuko militantea da Sortun afiliatzen den oro; bestela esanda, Sortuko militantea da antolakunde honetan afiliatzeak zein afiliazioak berekin dakarren gutxieneko parte-hartzeak erakusten duten antolakundearekiko gutxieneko konpromisoa eta lotura maila dituen oro, bere ekarpen maila edozein delarik ere. Zohardian esaten zen bezala, antolakunde honek gai izan behar duelako ekarpen maila eta mota guztiak probesteko, txikienetik hasi eta handieneraino, puntualenetik hasi eta iraunkorreneraino. Edonola ere, Sortuk ekarpen militante jarraitua eta iraunkorra hobetsi eta sustatuko ditu, berau ezinbesteko oinarria delako bai erakundearen funtzionamendu egokirako bai bere jarduera ahalik eta handiena eta eraginkorra izan dadin, eta, emantzipazio nazional eta sozialaren bidean, gure helburua delako jendartearen kontzientzia eta inplikazio maila handitzea.

Edonola ere, antolamendu- eta funtzionamendu- ondorioetarako soilik, militantzia horren baitan bi maila funtzional bereizteko apustua egiten dugu: militantzia organikoa (maila organizatibo ezberdinetako ekipo edo zuzendaritzetan egituraturutako kideak), batetik, eta oinarri militantea (gainerakoak), bestetik.

Guztiarekin, Zohardian zehaztu ekarpen- eta parte hartze-marko irekiak mantentzearen aldeko apustua egiten dugu (Dinamika Aktibista Propioa eta Tailerrak); alegia, antolakunde honek eskaini behar ditu markoak edota espazioak, hausnarketa, eztabaida, trebakuntza eta elaborazio kolektiborako, antolakunde honetako kide edo militante ez diren, baina antolakunde honen egitasmo politikoarekiko gutxieneko identifikazioa duten lagunen parte hartzera irekiak. Baina, hori bai, eta hau bada berritasun bat: hemendik aurrera erabakiak, Kongresu honetan hartuko ditugunak kasu, antolakunde honetako militanteek, alegia afiliatuek, alegia sortzaileek soilik hartuko dituzte. Zentzu honetan, eta badaezpada, oroitarazi beharra dago kuotaren ordainketak ez duela zertan afiliatu ahal izateko oztopo bat izan inorentzat, egoera sozioekonomiko zaurgarrian diren pertsonentzat O kuota zein kuota sinbolikoa baitaude indarrean. Halaber, bilkide (EH Bilduko afiliatu) ere badiren eta espreski hala eskatzen duten sortzaileei Sortuko kuotan %50eko beherapena aplikatuko zaie.

4. Sorturen antolaketa moldean egokitzapenak

Zohardian zehaztu eta harrezkero plantan jarritako antolaketa moldean lau egokitzapen nagusi egingo ditugu:

4.1 Orain arteko bosten orde, Sortuk hiru dimentsio organizatibo izango ditu

Batetik, bertikal edo territorializat jo genezakeen dimentsio organizatibo bat, zuzendaritza egitura, orain arte bezala, maila organizatibo ezberdinetako batzarrak eta zuzendaritza lantaldeek osatuko dutena; zeina, orain arte bezala ere, maila organizatibo ezberdinetako arduradun politikoek haragiztatuko duten; eta zeinaren funtzioa, orain arte ez bezala, ildo politikoa eztabaiatu eta erabakitzea ez ezik, ildo politikoa horixe inplementatzea ere izango den.

Bestetik, Sortuk horizontaltzat jo genitzakeen bi dimentsio organizatibo izango ditu: Tailerrak eta Dinamika Aktibista Propioa, Sorturen mugimendu izaerari lotuak; arestian esan bezala, printzipioz, sortzaile ez direnen parte hartzeri irekiak; eta antolakunde honi mugimenduen bereizgarri diren horizontaltasuna eta parte hartzailetasuna eman asmo diotenak.



4.2 Ekintza Politikoen eta Herrigintzaren birkontzeptualizazioa

Orain arte nazio mailatik herrietarainoko aparatu edo egitura ziren horiek nazio mailara mugatutako aparatu, lantalde edota lan eremu huts izango dira. Hortik aurrera, esku hartze lerro horien operatibazazioa/inplementazioa zuzendaritza egituraren (alegia, maila organizatibo ezberdinetako zuzendaritza lantalde zein arduradun politikoek) ardura eta zeregina izango da.

Ekintza Politikoa


Ekintza Politiko esaten diogun esku hartze lerro horren zeregina da pultsu politiko nagusiari zein prozesu-tresnak esaten diegun horiei loturiko eragiletza eta dinamizazioa. Zehazki, honako lan eremuena:

- Burujabetza formalaren pultsuari eusteko askotariko dinamikak.
- Presoen, iheslarien eta deportatuen etxeratzea.
- Gure memoriaren eta errelatoaren defentsa.
- Lan eta bizi baldintza duinen aldeko borroka, hein handi batean, prozesu tresnatzat ditugun LABen eta Ernaiaren zeregin diren heinean eta pultsu politiko nagusia elikatzeko palanka nagusitzat dugun neurrian.

Herrigintza


Herrigintza esaten diogun esku hartze lerro horren zeregina da ponentzia honen atal politikoan estrategiko eta lehenatasunezkatzat jo ditugun herri mugimendu edota dinamika horien (lan eta bizi baldintza duinen aldeko borroka, mugimendu feminista, euskara eta euskal kulturaren aldeko mugimendua, mugimendu ekologista, migratzaileen eskubideen aldeko eta arrazakeriaren kontrako mugimendua, hezkuntza mugimendua eta herrigintza eraldatzailea) sustapena. Horrek ez du esan nahi gainerako herri mugimendu edota dinamiketan jardungo ez garenik, hala nola, mugimendu internazionalistan, kirol selekzioen ofizialtasunaren aldeko dinamikan, sexu askapenaren aldeko mugimenduan... Are gehiago, Zohardian esaten zen bezalaxe, aldarri edota borroka eraldatzaile zein egitasmo komunitario orok izan behar du Sortuko kideon hauspoa. Alta horietan beste maila batean jardungo gara eta haiei buruzko tailerrak (hausnarketa espezifikoak) egin ahal izango baditugu ere, gaur-gaurkoz, bederen, ez dute aurreko bosten kasurako segidan zehazten denaren moduko itzulpen organizatibo iraunkorrik izango.

Bada, aipatu sustapen lan horretarako, zazpi mugimendu, dinamika edota lan eremu estrategiko horietako bakoitzaren baitan lanean dugun kidegoa saretzea/egituratzea proposatzen dugu, alegia, mugimendu, dinamika edota lan eremu estrategiko horietako bakoitzeko tailer iraunkor edo sare bat eratzea (lan eta bizi baldintza duinen aldeko borrokaren kasuan bat baino gehiago izan liteke, lan eremu horren zabaltasunak eta aniztasunak gogoeta espezifikoa eskatzen duelarik); egitura organizatibo horizontal bat, espresio eta espazio fisiko bat (tailerra) eta espresio eta espazio birtual bat (mezularitza aplikazio telematiko bat edo dena delakoa) izango dituen, baita, kasuan, buletin propio bat ere, hizpide ditugun mugimendu, dinamika edota lan eremu estrategikoetan egin beharreko eragiletza lanari begira irizpideak kolektiboki sortzeko eta partekatzeko.



Tailer iraunkor-sare horien dinamizazioa, orain artean bezala, Herrigintzako arduradunaren eta bere lantaldearen zeregina izango da. Horretarako, sare bakoitzeko lantalde bana sortuko dute, lan eremu horretako militante kualifikatuez osatuak. Beraz, Herrigintzaren nazio mailako lantaldea bai kuantitatiboki, baita kualitatiboki ere indartzeaz ere ari gara.

Apustua herri bakoitzean sare bakoitzeko saregile bat egotea da, betiere hartarako baldintza subjektibo eta objektiboak baleude (indar militantea, herriaren tamaina...). Saregile horrek ez du zertan Sortuko militante organikoa izan (hau da, ez du zertan herriko zuzendaritza lantaldeko kide izan), baina harreman zuzen eta estua izango du lantalde horretako kideekin. Beraz, sareek, bi lotura-bide izango dituzte egiturarekin: herrigintzako nazio lantaldea eta herriko zuzendaritza lantaldea.



Sare hauek erronka lokalei erantzuteko aukera izango lukete, tokiko eremuan horretarako behar eta aukerak ikusiko balira. Eredu malgua izango luke horien antolakuntzak, tokiko errealitate eta beharren arabera. Horrez gain, trebakuntza eta hausnarketarako gune irekiak eskainiko dituzte.

Azkenik, arestian aipatu eragiletza lan orokor horretatik harago, edo, hain justu, eragiletza lan hori emankorra eta eraginkorra gerta dadin, sare bakoitzari misio nagusi konkretua esleituko diogu, ildo politikoaren atalean jaso dugun bezala.

4.3 Antolaketaren birkontzeptualizazioa

Antolaketaren baitan bi dimentsio bereiztea proposatzen dugu, eta dimentsio horietako bakoitzari modu ezberdin batean erantzutea. Antolaketaren bi dimentsio horiek lirateke, batetik, antolakuntza huts gisa jo genezakeena, alegia: diruzaintza, bitarteko material eta humanoen kudeaketa eta planifikazio estrategikoa (kidegoaren trebakuntza eta ahalduntzea barne), mapa politiko-organizatiboaren jarraipena eta indartzea eta abar; bestetik, eraketa lantzat jo genezakeena, alegia: ildo politikoaren inplementazioari loturiko antolaketa lanak, inplementazio horri bere-berezko zaizkionak.

Bada, antolaketaren lehen dimentsio horri erantzuteko zera proposatzen dugu:

- Batetik, nazio mailara mugaturiko aparatua bat izatea (alegia, egun nazio mailatik herrietarainoko aparatua den Barne Antolaketa aparatua nazio mailara mugatzea).
- Bestetik, herrialdeetako eta herrietako zuzendaritza lantaldeen baitan pertsona batek zeregin hori bere gain hartzea.

Antolaketaren bigarren dimentsio hori, berriz, militantzia organiko guztiaren zeregina izango da, alegia, maila organizatibo ezberdinetako zuzendaritza lantaldeetako kideena.

4.4 Dinamika Aktibista Propioaren birkokapena

Hemendik aurrera, Ekintza Politikoaren esku hartze lerroari soilik ez, baizik eta ildo politikoaren osotasunari erantzungo dio, alegia, bai Ekintza Politikoari, baita Herrigintzari ere.

Bestalde, Dinamika Aktibista Propioa herriratuko dugu. Sortuk tokiko planoan garatzen dituen dinamikak eta horretarako erabiltzen dituen moldeen inguruan unean une hausnartuko luke, moldeak helburua lortzeko tresna direla, eta ez helburu, ulertuta. Sortuk eraginkortasuna bilatuko du bere ekimenetan eta, horretarako, esperientzia ezberdin eta berritzaileak, "ARTibismoa" kasu, martxan jarriko ditu. Azken hau ezker abertzalearen ezaugarri izan den *agitprop*-aren bertsio eguneratutzat jo genezakeena.

Zohardian esan bezala, egiturak bermatu beharko du Dinamika Aktibista Propioak estekadura egokia izan dezan ildo politikoarekin zein gure behar organizatiboekin, aktibismo hutsa edota bere baitan helburu bilakaturako aktibismo bilaka ez dadin.

4.5 Plan Feminista

Askotan esan izan dugu Euskal Herriaren askapen prozesua bururaino eraman nahi badugu, ezinbestekoa dela emakumeen* emantzipazioan nahiz pertsonen arteko parekidetasunean urratsak ematea, urrats feministak ematea. Horrek, ezinbestean, ikuspegi luzeko prozesu eraldatzaile feminista garatzea eskatzen du. Horixe da Plan Feministaren anbizio nagusia: jendarte parekide baten bidean urratsak modu kontziente, planifikatu eta sistematikoan ematen lagunduko digun tresna politiko integrala izatea. Plan Feminista gure eginez hartzen dugun konpromisoa, mugimendu eta alderdi gisa, gure izatearen despatriarkalizazioan urratsak ematen jarraitzea da. Barne zein kanpo mailan, estrategia eta praktika feministetan etenik gabe sakontzen edo garatzen jarraituko dugula ezartzea, alegia. Honen ardura beraz, militante guztiona da.

Plan Feminista, prozesu luzea osatu ahal izateko tresna da, eta bi dimentsioetan eragin nahi duen begirada integral sistemiko batetik garatzea erabaki dugu. Orain hiru urte burututako diagnostikoaren ondorioetan oinarrituta, martxan den Plan Feminista aldaketarako lau ardatzetan oinarritzen da. Barnera begirako eraldaketa definitzen duten hirurak: Sorturen baitan kultura berria hedatzea, Sortu parekidea bilakatzea eta Sortu indarkeria matxistatik gabeko erakundea izatea; nahiz kanpora begirako dimentsioan kokatzen duguna, Sortuk ikuspegi feminista propioa izatea eta estrategia feministan aurreratzea. Aldatu nahi dugun errealitatean eragiteko, errealitate osoari begiratu behar diogu, dena baitago elkarri lotuta eta harremanean. Horregatik, Planean zehaztu genituen aldaketa nagusiak eta helburuak elkar elikatzen dira eta horien hurrenkerak ez du hierarkia bat adierazten.

Trebakuntza dugu beraz bide hau jorratzeko ezinbesteko tresna, zenbait hausnarketetan sakondu eta gure praktiken eraldaketarako, bai modu kolektiboan zein maila indibidualean ere. Esana dugu bide hau guztion ardura dela eta zentzu honetan, emakumeon* ahalduntzeaz gain, arreta jarri nahi dugu botere harremanetan nahiz maskulinitateen inguruko gogoeta eta deseraikuntza prozesuetan.

Plan Feminista misio politikotzat hartuko badugu, Nazio Idazkaritzari dagokio behar bezala garatzen ari garenen inguruko segimendua eta erantzukizuna bere gain hartzea. Horren jarraipena egiteko, Plan Feministaren arduradunak behar den guztietan Nazio Idazkaritzaren bilkuretan parte hartuko du. Bestetik, Plan Feminista

modu egoki eta integralean garatzen dela ziurtatzeko, egituratze propioa izango du; antolakundean zehar-
-lerrotasunez eragiteko, alde batetik, eta emakumeen* lidergotza eta espazio propioak bermatzeko, bestetik.

4.6 Sortu euskalduna

Euskal Herria euskalduntzeko bidean geure buruak euskalduntzea. Sortu erakunde euskalduna da, azken bu-
ruan Euskal Herria euskalduna helburu duelako ez ezik, baita euskararen normalizazioaren bidean bere jard-
nean konpromisoak hartzen dituelako ere; dela bere barne funtzionamendua euskaraz bideratzen duelako,
dela kanpo- komunikazioan euskara lehenetsiko duelako -beti ere, unean uneko publiko hartzailearen ezaugarri
soziolinguistikoen eta helarazi nahi duen mezuaren helburuen arabera-. Euskalduntze prozesua arnasberritzen,
ezkerretik eta independentismotik dokumentuarekiko koherentzian konpromiso hauek eraberritu eta betetzeko
ardura hartuko dugu. Horretarako, euskararen kanpo nahiz barne erabilera zehaztuko duen proposamena osa-
tuko da eztabaidatu eta onartzeko.

5. Zuzendaritza egituraren egokitzapenak

Hona zuzendaritza egitura esaten diogun horretan proposatzen ditugun egokitzapenak:

5.1 Egokitzapen orokorrak

Oro har, maila organizatibo guztietan, baina, modu berezian, herrialdeko eta tokiko planoetan, zuzendaritza lantalde integral eta funtzionalak osatuko ditugu; alegia, ardura indibidual nominaletan oinarritutako eskema organizatibo batetik (zeinetan zuzendaritza lantalde bakoitzean Herrigintzaren, Ekintza Politikoaren, Barne antolakuntzaren, Komunikazioaren eta abarren arduradun nominalak dauden) lantalde funtzional eta autoaskietan oinarrituriko eskema organizatibo batera pasako gara (zeinetan zuzendaritza lantaldeok, lantaldea osatzen dutenen profilak aintzat hartuz, beren baitan ahalik eta lan banaketa funtzionalena eta eraginkorrena egingo duten).

Edonola ere, Zohardian finkatu printzipio organizatiboan berresten gara: bai antolaketa egitura, baita funtzionamendua ere, errealitate zehatz bakoitzari egokitu behar zaizkio; alegia, tokian tokiko errealitatearen ezaugarriek, indar militanteak eta jorratu beharreko dinamika politikoak aginduko dituzte beharrezko antolaketa egitura eta funtzionamendu zehatzak, baita, tokian toki, eskualde izaera duten edota ezaugarri jakin batzuk betetzen dituzten (herri txiki askoz osatuta, eskualde mailako dinamika propioa...) eskualdeen kasuan, maila honetan antolatzeke aukerari dagokionez ere. Beraz, beste behin ere, hemen marrazten ari garena planteamendu estandarra edo minimoetakoa da; hortik aurrera, malgutasuna, moldagarritasuna eta funtzionaltasuna, horiek dira funtsezko kontzeptuak.

Sorturen barne funtzionamendua demokrazian oinarritzen da. Honela, barne-kargu guztiak bere mailan kidegoak hautatuak izango dira, maila lokaletik nazionalera. Batzarrak izango dira hautaketa burutzeke markoa, eta aurreikusitako prozedurak eta epeak erabiliko dira. Kargu batek bere lana utzi behar badu, eta berria hautatzeko hurrengo batzarra antolatu bitarte, bere ordezkioak hartuko du ardura.

Barne-demokrazia eta militantziaren erabateko engaiamendua dira Sorturen oinarriak. Eraginkortasuna eta barne-orekari begira, egituraren kargu guztiak edozein unean erreboagarriak izango dira, horretarako aurreikusitako prozedurak errespetatuz. Barne-zaintzaren printzipioak jarraituz, bere mailako batzarra izango da ardura ordezkatzeko markoa, eta kargu berria hautatzeko.

5.2 Plano nazionala

Kongresua, Konferentzia Politikoa eta Nazio Batzarra

Arestian esan bezala, horietan, gainerako erabakiguneetan bezala, bozka eskubidea sortzaileek baino ez dute izango. Are gehiago, Kongresuaren kasuan, erabaki organo gorena den heinean, eta bertan hartzen diren erabakiak izan litezkeen garrantzitsuenak diren heinean, gutxienez sei hilabeteko antzinasuna duten afiliatuek baino ezingo dute parte hartu. Konferentzia Politikotik eta Nazio Batzarretan, berriz, gutxienez hiru hilabeteko antzinasuna dutenak. Edonola ere, Konferentzia Politikoa kasuan, hausnarketarako eta eztabaidarako espazio irekiak eskainiko dira.

Kongresuaren aldizkakotasuna bost urtekoa izango da. Konferentzia Politikoa, orain arte bezala, urte betea. Nazio Batzarra, berriz, orain arte bezala ere, ez du aldizkakotasun zehatzik izango, baina, gutxienez, urtean bitan bilduko da.

Konferentzia Politikoa ikasturte politiko bukaerara aldatzea proposatzen dugu, baita, hein batean, berrezugarritzea ere: kongresu prozesu honetako ponentzia jorratzeko egin ditugun Nazio Topaketen norabidean berrezugarritu ere. Bestalde, ezaugarritze berri horren ildotik, hemendik aurrera Nazio Konferentzia izendatzea proposatzen dugu.

Nazio Kontseilua-Nazio Idazkaritza

Bi ganberako zuzendaritza eredu baten aldeko apustua egiten dugu. Alegia, Nazio Kontseilua eta Nazio Idazkaritza, biak ala biak lirateke zuzendaritza markoak; lehena, normalean, bizpahiru hilean behin bilduko litzateke, baita, ez-ohiko eran, ildoaren gaineko erabaki garrantzitsu bat hartu beharko litzatekeen guztietan ere, eta epe erdira begirako zuzendaritzaz arduratuko litzateke; bigarrena, berriz, normalean, astero bilduko litzateke, eta eguneroko zuzendaritzaz arduratuko litzateke.

Osaketari dagokionez:

- Nazio Idazkaritzaren osaketa berria honako hau izango da:
 - » Idazkari Nagusia
 - » Idazkari Teknikoa (Idazkariorde lehena)
 - » Barne Koordinatzailea (Idazkariorde bigarrena)
 - » Norabidetze Estrategikorako Gunearen arduraduna (Idazkariorde hirugarrena)
 - » Ekintza Politikoko arduraduna
 - » Herrigintzako arduraduna
 - » Barne antolaketako arduraduna
 - » Komunikazioko arduraduna
 - » Nazioarteko arduraduna
 - » Gatazkaren ondorioen konponbiderako batzordearen arduraduna
 - » Herrialdeko arduradunak (Ipar Euskal Herria herrialde bakartzat jota)
- Nazio Kontseiluaren osaketa, berriz, bere horretan mantenduko da, alegia:
 - » Nazio Idazkaritzako kideak
 - » Herrialde bakoitzeko kide bana, herrialdeko irizpidearekin hautatua
 - » Hamar kide, nazio irizpidearekin hautatuak

- Bestalde, biek ala biek, betiere puntualki eta bozka eskubiderik gabe, eskuartean dituzten gaien lanketarako interesgarri deritzen lagunak inkorporatu ahal izango dituzte.

Hautaketa moduari dagokionez, indarrean den moldearen mantenduko dugu, alegia: herrialdeko arduradunak ez beste Nazio Idazkaritzako kideak hautagaitza kolektibo bakarria bainan hautatuko dira, Kongresuko akreditatu guztiek hautatu ere. Herrialdeko arduradunak, herrialdeko irizpidearekin hautatutako bost lagunak eta nazio irizpidearekin hautatutako hamarrek, berriz, hautagaitza indibidualak izango dira. Herrialdeko arduradunak eta herrialdeko irizpidearekin hautatutako bost lagunak dagokion herrialdeko akreditatuek hautatuko dituzte. Nazio irizpidearekin hautatutako hamar lagunak, berriz, akreditatu guztiek.

Hizkuntza eta genero irizpideei dagokienez, Zohardian zuzendaritza marko guztietarako finkatutako konpromisoetan berresten gara, alegia, Nazio Kontseiluko eta Nazio Idazkaritzako kide guztiek euskaldunak behar dute izan, eta haien %40a, gutxienez, emakumeak.

Nazio Kontseiluaren osaketan lurraldeen arteko gutxieneko oreka bermatze aldera, herrialde bakoitzeko kideen ehunekoa herrialde horretako sortzaileek kopuru osoaren baitan suposatzen duten ehunekoaren bi heren izango da gutxienez. Hartarako beharrezkoak liratekeen zuzenketak nazio irizpidez hautatu beharreko hamar lagunengan aplikatuko lirateke, hamar lagunok aukeratzeko aintzat hartuko liratekeelarik, lehenik, herrialdeen balizko azpi-ordezkaritzaren zenbatekotasuna, eta, bigarrenik, kide bakoitzak jasotako bozka kopurua. Hala, hamar postu horietako bakoitza herrialderik azpi-ordezkatueneko kiderik bozkatuenarentzat izango litzateke, postu bakoitza banatu eta gero berriro kalkulatu litzatekeelarik herrialde bakoitzaren pisu espezifikoak. Azkenik, genero oreka lurralde orekaren gainetik egongo da. Alegia, Nazio Kontseiluko kideen %40a gutxienez emakumeak ez diren bitartean, postu horiek emakumeentzat izango dira (herrialderik azpi-ordezkatueneko emakumerik bozkatuenarentzat, edo, herrialde horretako emakumerik ez balego, hurrengo herrialderik azpi-ordezkatueneko emakumerik bozkatuenarentzat, eta abar).

Norabidetze Estrategikorako Gunea: mugimendu talaia

Jatorrizko izaera eta egitekoei jarraiki, berau indartuko dugu, LABen eta Ernain ez ezik, EH Bildun-EH Bain zein herri mugimendu edota dinamika estrategikoetan lanean ari diren Sortuko kide kualifikatuak inkorporatuz. Horrekin batera, haren maiztasuna handituko dugu.

5.3 Herrialdeko planoa (Ipar Euskal Herria herrialde bakartzat hartuta)

Arestian esan bezala, herrialdeko arduradun politikoaren inguruan zuzendaritza lantalde funtzional eta autoaskia osatuko dugu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan zuzendaritza lantalde hori izango da herrialde mailako zuzendaritza marko bakarria (herrialdeko idazkaritza); Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, berriz, eta bertako sortzaileek aurkakorik erabakitzen ez duten artean, behintzat, nazio mailan bezalaxe, bigarren zuzendaritza ganbera bat izango da (Kontseilua).

Orain artean bezala, hiriburuko arduradun politikoa zuzendaritza lantalde horretako kide izango da; gainerako kideek (herrialdeko arduradun politikoak izan ezik, noski) ez dute ardura nominal zehatzik izango, haien artean banatuko dituztelarik, batetik, esku hartze lerroak, esku hartze eremuak edota zereginak (ekintza politikoa eta herrigintza; haien baitako lan eremuak; barne antolaketa; komunikazioa; trebakuntza...); eta, bestetik, herriak eta haien jarraipena, alegia, ildo politikoaren herrietarantzko transmisioa eta eraketa lanak.

Azkenik, herrietako arduradun politikoen bilgunea sortuko dugu, ez erabakigune gisa (herrialdeko batzarrari dagokio egiteko hori), koordinaziorako bitarteko gisa baizik.

5.4 Tokiko plano

Zohardian finkatu bezala, Herri Batzarra, herriko erabakitze-organo gorena eta Sortzaileen topagune nagusia izaki, behar bestetan bilduko da, alegia, dela tokiko dinamika politikoak dela gai konkretu batek hala eskatzen duen aldiro, garbi utzirik ezen, “Ildo Politikoaren lanketa eta transmisiorako barne dinamika” atalean esaten den bezala, aktualitate politiko-instituzionalaz jarduteko markoa EH Bilduren herri batzarra dela, ez Sorturena, baita EH Bilduren herri batzarra gurea ere badela eta, horrenbestez, Sorturen herri batzarraren maiztasuna eta gai-ordena zehazterakoan berau oso presente eduki beharra dagoela.

Bestalde, herrialdeetan bezala, herriko arduradun politikoen inguruan zuzendaritza lantalde funtzional eta autoaskia osatuko dugu, kasu honetan, bere zeregin nagusia oinarri militantea saretu eta kidegoaren artean joko banatzea izango delarik; alegia, kidegoaren artean misioak/zereginak banatu eta Plan Politiko lokalaren bueltan ahalik eta jende gehien lanean jartzea.

Horretarako bi bitarteko/lanabes nagusi izango ditu: Plan Politiko lokala (herriko plangintza), batetik; oinarri militantearen zerrenda, bestetik.

Herrialdeen kasuan bezalaxe, zuzendaritza lantalde hori izango da herriko zuzendaritza marko bakarra (herriko idazkaritza), tokian toki, nazio mailan bezalaxe, bigarren zuzendaritza ganbera bat (Kontseilua) eratzea erabaki baliteke ere, betiere hartarako beharra eta baldintzak baleude.

5.5 Hiriburuak

Hiriburu zein hiriguneetako abaguneari erantzuten haste aldera, eta berau jorratzeko azken hilabeteetan lanean aritu den tailerraren ondorioei jarraiki, honako hiru neurriak hartuko ditugu:

- Egoeraren azterketa berri eta ildo politikoaren proiektzioa zein zehaztapena egitea helburu duten Nazio Kontseilu zein Nazio Idazkaritzaren bilkuretan parte hartuko dute.
- Aldian behin, herrialdeko zuzendaritza lantalde zabaltzat jo genezakeena bilduko dugu, alegia, herrialdeko eta hiriburuko zuzendaritza lantaldeak bilduko dira.
- Hiriburuen arteko zein haietan jorratu beharreko esku-hartzearen zehaztapenari buruzko hausnarketa partekaturako espazioa (Hiriburu eta hiriguneen tailerra) sortuko dugu.

Hiriguneetako oinarri soziala lantzeak eremu antolaketaren berezitasun gehigarria du. Orain arte egin dugun eraketa lana auzoei oso lotua egon da, eta errealtate oso ezberdinak bizi baditugu ere, zenbait hiriburutan komunitatea hori baino askoz gehiago da. Hiriko erreferenteak eta lidergoak ez dira soilik auzoetan mugitzen. Dena den, auzoek bereganatzen dute eraketa lan ia guztia bai Sortun eta baita EH Bildu/EH Bain ere. Hirian bizi egiten duen komunitatea ehundu, dinamizatu eta duen potentzialitatea indartzeko logika berriak garatuko ditu Sortuk eta, dituen ahalen arabera, sor litezkeen behar espezifikoari erantzun die.

Komunikazio emankor bat garatzearen erronka Sortuk duen korapilo nagusietako bat da eta are konplexuagoa gertatzen zaigu errealtate honi hiriburuetan erantzutea. Hori dela eta, Komunikazio aparatua nazionalak hirie-

tarako plan komunikatiboa hausnartzeko bertako kideekin gogoeta eta lanketa bat egingo du. Sortuk bertatik erator litezkeen behar politiko eta organizatiboei erantzungo die.

Hiriburuetako herrigintza eremuko jardunak lotura estua du hiri ereduaren talkarekin eta eredu berri baten eraikitzearekin. Horrek egiteko logika eta bitarteko zehatz batzuk eskatzen ditu. Herrigintza ikuspegi hori landu eta borroka ezberdinek hiri ereduaren inguruko lanketan konfluentzia egin dezaten, hiriburuetako Plaza Hutsak egitea planteatuko dugu.

5.6 Landa eremuak eta despokatutako eremuak

Euskal Herriko Landa Eremu zein despokatutako zonaldeek dituzten berezitasunei erantzun behar dio Sortuk ezinbestean. Gure herrian gero eta hedatuago den errealtate bat da despokatazioa eta aldi berean landa eremuak biziberritzea gure herria txikitasunetik eraikitzeo aukera paregabea eskaintzen digu. Eremu hauetako errealtateak (soziala zein organizatiboa), ez du zerikusirik hiriburu edo bestelako hiriguneekin. Hau horrela izanik, oso garrantzitsua da Euskal Herriaren luze zabalean dauden eta antzeko izaera duten eremuak harremanetan jarri eta esperientziak partekatzen hastea.

6. Ildo politikoaren lanketa eta transmisioa

Sortuk ezker abertzalearen oinarri militanteari askapen prozesua sustatzeko eman beharreko irizpide politiko-ideologikoak modu partekatuan sortu behar direla esan dugu. Izan ere, Sortu ez da kontsignak banatzeko bitarteko bat, hausnarketa, eztabaida eta erabaki kolektiboak jorrazteko bitartekoa baizik, funtsezkoa delarik irizpideok ahalik eta hausnarketa eta eztabaida kolektiboenen ondorio izatea.

Ildo horretan, ildo politikoari buruzko hausnarketa eta eztabaida sistematizatzearen aldeko apustua egiten dugu, baita ildo politikoaren urteko hausnarketa- eta transmisio-ziklotzat jo genezakeena instituzionalizatzearen aldekoa ere.


Ziklo horrek bi mugarri nagusi izango ditu:

- Nazio Konferentzia (ikasturte politikoaren bukaera aldera), non ikasturte politikoaren balantzea itxi eta egoeraren azterketa zein Plan Politikoa eguneratuko ditugun.
- Plaza Hutsa (ikasturte politikoaren erdialdera), sare guztien topaketa nazionaltzat jo litekeena; hurrengo ikasturte politikoari begirako herrigintza arloko erronkez aritzeko, zeintzuk, erabakirik eskatzekotan, Nazio Konferentziaren esku utzi beharko diren.

Bi mugarri horiek hausnarketa- eta eztabaida-prozesu kolektibo baten baitako inflexio uneak izango dira; alegia, biek ala biek aurre-lanketa bat izango dute.

Bestalde, Nazio Konferentziak herri mailako itzulpena izango du: ikasturte politikoaren hasieran egingo dugun herri batzarra, zeinaren bidez Plan Politikoa herriratu (Plan Politiko lokala edo plangintza itxi) eta kidegoaren artean lehen lan banaketa bat egingo den; eta zeina, bide batez, oinarri militantea trinkotu eta komunitatea indartzeko probestuko dugun (bazkaria, poteoa...).

Azkenik, ildo politikoaren lanketa eta transmisiorako dinamikari dagokionez, EH Bilduren-EH Bairen herri batzarrak aintzat hartu behar dira. Izan ere, Sortuko kide orok EH Bilduko-EH Baiko kide ere izan behar badu, eta hala behar du, EH Bilduren-EH Bairen herri batzarretan parte hartu behar du. Zer esanik ez gure oinarri sozial zabalak, zeina EH Bilduren-EH Bairen batzarretara bideratu eta EH Bildun-EH Bain erreferentzializatu beharra dagoen.



Sorturen Nazio Kontseilua

2022ko urtarrilaren 22an

